



Egape dantza taldearen jaialdi ikusgarria, larunbat honetan

‘Plazara plazerez’ dantza ikuskizuna, larunbat honetan Urnietako Plazido Muxika plazan.

Ostiralean, Aukera dantza taldeak ikuskizun ezberdinak eskainiko ditu plazan. Larunbatean, berriz, Egape dantza taldeak hamargarren urteurrenko emanaldia eskainiko du Plazido Muxika plazan. Azken hauek, gainera, gonbidatu bereziak igoko dituzte taula gainera. Besteak beste, Anabas musika taldea eta Ugarte txalapartariak. Antolatzaileek sorpresa gehiago iragarri dituzte.



Ioritz Lizeaga eta Naroa Agirre Egape dantza taldeko kideak.

Egape dantza taldeak “Plazara plazerez” ikuskizuna eskainiko du, gaueko 22:00etan Plazido Muxika plazan

Erronka handia izango da dantzariarentzat, toki itxi batetik plazara igaroko baitira. Emanaldia kalean izatea “oso berezia” izango dela nabarmendu du **Ioritz Lizeaga** dantzariak. Izan ere, modu honetara jende gehiago hurbilduko da, eta gainera, gauean egiteak “beste goxotasun bat” ematen duela azpimarratu du **Naroa Agirrek**.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Euskalduna taldearen deialdia



Euskalduna futbol taldeak jakinarazi duenez, 2006, 2007, 2008 eta 2009 urteetan jaiotako neskek eta mutilak ekainaren 19, 20 eta 21ean eman ahal izango dute izena futbol eskolan. Ubitarteko futbol zelaiko bulegora azaldu beharko da, 17:30etatik 18:00etara. Bestalde, Euskaldunak deialdi berezia egin die 2004 eta 2005ean jaiotako neskei, infantilen mailan jokatu nahi dutenei. Emakumeen futbola indartu nahi du Euskaldunak, eta jokalarien beharrea da horretarako.

Iñigo Gurrutxaga Euskaldunako kirol zuzendariak eta Eneritz Ramirez infantil mailako nesken entrenatzaileak adierazi dutenez, gonbitea futbola gogoko duten neskei zuzentzen die, “gutxienekoa da maila ona izatea edo ez izatea. Garrantzi gehiago ematen diogu futbola maitatzea eta futbola giro atseginean praktikatzeko gogoia edukitzea”. Euskaldunak emakumeen futbola indartzeko apustu sendoa egin nahi du: “Iruditzen zaigu kirolean ere gaztetxoek, izan mutilak izan neskak, aukera berdintasuna eduki behar dutela, eta horretarako aukera errealak eman behar zaizkiela”.

[AZKENA, 8. ORRIALDEA]

San Juan jaiei buruzko informazio guztia, erdiko orrialdeetan

Andoaingo jaiak ekainaren 23an hasiko dira, eta Aiurriko orrialdeetan dagoeneko informazio ugari aurki daiteke.

Jaietako egitarauarekin batera, aurtengo protagonista ugari bildu ditu Aiurri astekariak: Aurtengo pregoilariak, jaien hasiera iragarriko duten kan-

pai jotzaileak, estrainekoz dantborrada antolatu duen elkar-atea, herri bazkariren deialdia, udako solstizio jaiak...

Iragan hurbileko gertaera eder bat bildu da gehigarrian, 1972ko jaietan gertatu zena. Orduko hartan hamalau urteko gazte batek Udalaren eskertza jaso zuen, hilabete batzuk lehenago itotzen ari zen haur baten bizitza salbatzeagatik.

[GEHIGARRI BEREZIA]



Herri bazkaria ekainaren 24an izango da, Goikoplazako frontoian.



EGUNEROKOAREN JARRAIPIEN ZEHATZA WEBGUNEAN

AIURRI

.eus

Nestor Orozko, Ziprera bidean

Unrietar prestatzailea AEK Larnaka taldera doa, Idiakez entrenatzailearen eskutik.

[KIROLAK, 7. ORRIALDEA]

Zanpatuz taldearen irteera berria uztailean



Hainbat mendizale Ezkaurre mendian.

Zanpatuz mendi elkarteak lehen sei hilabeteko azken irteera antolatu du uztailean erdialderako. Huescako Pirinioetara izango da, eta bi eguneko (uztailak 15-16). **Joxerramon Jauregi** irteerako arduradunak Astun eta Artouste eski estazioen arteko bidea presatu du larunbaterako, Midi d'Ossau erpin ikusgarria inguratuz. Iganderako, aldiz, Sarra urtegia eta Respomuso aterpe arterainokoa izango da txangoa, itzulikoa Arriel lakuetatik behera. Pueyo de Jaca herriko aterpean egingo da larunbaterako afaria, gaua, gosaria eta bazkaria. Herrira buelta igande iluntzerako espero da. Sei bat orduko buelta izango da bi egunetan, eta bidean jan eta edan beharrekoa norberak eraman behar du. 2.000 metrotik gora

egiten du bideak, arropa egokia eramatea komeni da, beraz. Bazkideek 60 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 70 euro. 50 lagunentzako tokia gorde da, zerrenda handiagoa bada itxaron-zerrenda zabalduko da. Xauxar, Kantoi eta Ikasminen eman ahal izango da izena, uztailean 3a bitarte.

EZKAURRE MENDIRA IRTEERA

Larunbatean Ezkaurre mendira egin zuen txangoa Zanpatuz-ek. 36 lagun elkartu zen denera. 08:00etarako martxan ziren Zurizako mendatetik eta bi ordu eskasetan, gailurra jo. Eguerdiko 12:30erako Zurizara iritsi ziren, eta askok erre-kako freskuran hartu zuten atsedean, giroa beroa baitzen.

Santa Kruz elkartearen eskertza Gonzalez bazkideari



Xabier Gonzalez Ubegun.

Joan zen ekainaren 10ean, **Xabier Gonzalez Ubegun** jauna zendu zen, Santa Kruz kirol eta ehiza elkartearen bazkidea. Urtetan Xoxoka inguruko ehiztarien postuen antolakuntza eta zozketak bideratzeaz arduratu zen. Santa Kruz elkartearen kideok, bere lan eta saiakera eskertu nahi dugu lerro hauen bidez eta, une latz hauetan, familiari gure babesa erakutsi nahi diogu.

Iturria Top 10aren bila 'Route du Sud' itzulian

Mikel Iturria 'Route du Sud' itzulian ari da egunotan. Hila-bete eskas da Madrilgo Itzulian erradioburua hautsi zuenetik, baina ondo osatu da. Hamar egun egin zituen errepidean ibili gabe, baina pasaden astean Portugalen korritu zuen, eta ondo ikusi zuen bere burua. Frantzia hegoal-

dean jokatu den proban larunbaterako mendiko etaparen protagonista izaten saiatuko da urnietarra, eta bide batez, Top 10ean sartu nahi du sailkapen nagusian. Erlojupekorik ez du aurten itzuliak, eta horrek iazko 11. postua hobetzeko aukera handitzen duela uste du Euskadi-Murias taldekoak.

Ekintza ugari, ekainaren 17tik 29ra

LGTB kolektiboa aintzat hartuko duen zikloa



Eli De Arriba Berdintasun teknikaria, David Rosco Sustapeneko zinegotzia, Mikel Pagola Urnietako alkatea eta Olatz Urretabizkaia Gazte Informazioa puntuko arduraduna astearte goizean, zikloaren aurkezpen ekitaldian.

LGTB kolektiboaren Nazioarteko Egunerako egitaraua aurkeztu du Udalak. Ekainaren 17tik 29ra bitarte ikastaroak, laburmetriak eta tailerrak eskainiko dituzte Urnietan.

Pertsona guztien arteko tratu berdintasuna aldarrikatu nahi du Urnietako Udalak LGTB kolektiboaren Nazioarteko Eguneraren harira –ekainak 28– antolatu dituen ekimenean. Horrela adierazi zuten ekimen horien aurkezpenean **Mikel Pagola** Urnietako alkateak, **Eli De Arriba** Berdintasun teknikariak, **David Rosco** Sustapeneko zinegotziak eta **Olatz Urretabizkaia** Gazte Informazioa puntuko arduradunak.

Prensaurrekoa kolorez betetarikoa izan zen. Ortzadarraren koloreko aterkiak zeuden apaingarri moduan mahai aurrean, eta aipaturiko Udal ordezkariak ortzadarraren koloreko pegatina bana zeramaten soinean.

David Rosco Sustapeneko zinegotziak adierazi zuenez, jendea bere orientazio sexualarengatik diskriminatzea ez da bidezkoa, eta Udalak jarrera horiek erabat gaitzetsi eta jarrera integratzaileak edukitzearen aldeko aldarria egiten du. Bestalde, jarrera diskriminatzaileak oraindik presente daukela gogorarazi zuen: “70 herrialde baino gehiagotan zigortzen dituzte kolektiboko pertsonen arteko harreman sexualak”.

Horren guztiaren harira, Udalak ere betebeharrak duela uste du Eli Darriba Berdin-

tasun teknikaria. “Hori dela eta, antolatu den programazioak herrian zehar ikusgarritasuna lantzea du helburu”.

“Urnietako Udalak egiten duen apustua jendearengana iristea da”, adierazi zuen Mikel Pagola Urnietako alkatea. Baita, jendeak hemendik aurrera ikur moduan erabil ditzakeen hainbat neurri bultzatzea ere. Horren harira, ekimenik esanguratsua ortzadarraren margoketa kolektiboa izango da. Arantxa Iturbe artistak ortzadarraren bozeto bat egingo du, eta ondoren, nahi duen herritar orok har dezake parte margoketan. Plazido Muxika plazako harmailetan margotuko da ekainaren 20an, arratsaldeko seietan hasita. Irudi horren bitartez, urte osoan ikusiko da zabaldu nahi den mezua”, azaldu zuen Pagolak.

EGITARAU ZABALA

Emagin elkarteak antolatutako emakumeentzako autodefentsa ikastaroarekin emango diote hasiera egitarauari ekainaren 17an. 14 urtetik gorako emakumeek parte hartu ahalko dute, aurrez izena emanaz: Bertan herritarren arreta bulegoan edota berdintasuna@urnieta.eus korreoan. Eli Darriba Udaleko Berdintasun teknikariak emakume guztiei gonbita luzatu die ikastaro horretan parte hartzeko.

Ekainaren 21ean *Zer dakigu sexu aniztasunari buruz?* izeneko tailerra izango da Gazte Lekuan Muxu Goxo elkartearen eskutik, 17:30ean.

FILM LABURREN EMANALDIA EKAINAREN 28AN

Ekainaren 28an, LGTB kolektiboaren Nazioarteko Eguneraren zehazki, honako lau film labur eskainiko dira Zinegoak Bilboko gaylesbotrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoaren Jaialdiaren eskutik: *Oh-be-joyful*, *Diversxs*, *Pink boy* eta *Victor XX*. Emanaldia Saroben izango da arratsaldeko seietan hasita. “Ikusiko diren laburmetriak transexualitatearen daude oinarrituta. Izan ere, gai hori bereziki ikusarazten saiatu gara”, azaldu du Olatz Urretabizkaia Gazte Informazioa puntuko arduradunak.

Hurrengo egunean emango zaio amaiera ekimenez betetako egun horiei, transexualitatearen lehen pertsonen eta sexualitatearen ikuspuntutik izeneko hitzaldiarekin. Chrysalis elkarteak sexologiaren aldetik hitz egingo du, eta gainera, transexual batek bere esperientziaren berri emango du. Hitzaldia Lekaion izango da arratsaldeko 18:30ean. Sarrera doakoa da.

Horrez guztiaz gain, liburutegian aniztasun sexualari buruzko liburuak bilduko dituen txokoa sortuko da.

Urretabizkaia herritarrak ekimen zabal horietan parte hartzea gonbidatzen ditu errealitate horiek ezagutzeko. “Egunerokotasunean dauden gauzak dira, eta ikusten ez ditugun arren, lanketa egunerokoa da”, hitz horiekin eman zion amaiera egitarauaren aurkezpenari Urretabizkaia.

Larunbat gauean Egaperen emanaldia; bezperan Aukeran taldea

Urteurren borobila



Egape dantza taldekoen entsegua, joan zen astelehenean Saroben.

Egape dantza taldeak 10 urte bete ditu aurten eta urteurrena ospatzeko emanaldi berezia eskainiko du larunbat gauean, 22:00etan, Plazido Muxika plazan. "Plazara plazerez" ikuskizunak dantza taldearen sorrera eta ibilbidea taularatu du.

Urtero Sarobe antzokian eskaintzen duten emanaldia kalera aterako dute aurtengoan. Erronka "handia" izango da dantzariarentzat, toki itxi batetik plazara igaroko baitira. Emanaldia kalean izatea "oso berezia" izango dela nabarmendu du **Ioritz Lizeaga** dantzariak. Izan ere, modu honetara jende gehiago hurbilduko da, eta gainera, gauean egiteak "beste goxotasun bat" ematen duela azpimarratu du **Narrea Agirre**.

"Lehenengo urtea da plazara ateratzen garela horrelako ikuskizun batekin eta guretzat plazera izango da horrenbeste jenderen aurrean aritzea", azaldu dute. Sentimendu horretatik abiatuta jarri diote emanaldiari "Plazara, plazerez" izena.

Larunbatekoa urte amaierako emanaldia baino zerbait gehiago izango da; izan ere, ikuskizunak Egaperen sorreratik gaur egun arterainoko ibilbidea islatu nahi du. "Azken urteetan erabilitako elementuak erabiliko ditugu zenbait dantzetan: gomak, maskarak...".

Horrez gain, ikuskizunean zehar sorpresa "potoloak" egongo direla iragarri dute. "Bertan biltzen direnen artean, harridura piztuko duen zerbait izango dela esan dezaket. Jarraia ezberdinak bateratuko dituen performance xume bat egongo da", adierazi du **Edu Muruamendiaraz** irakasle eta dantza taldeko arimak.

EGAPE DT 10 URTE

Narrea Agirre

Bizi bazara herrixka baten edo ikasi baduzu Egape agian zu ere hasiko zinen gurekin dantza pixka bat ikasten (bis) "Infusioak", "Zapiarteak" edo "Zuria gure erara" "Begiradak dantzan" ekarriaz gator (gu) Plazerez plazara (bis) 400 bat istorio ta antzerkiak eta 11 dantzari txiki bidaiak ere egin ditugu ta beste lekutara iriki (bis) Guk 10 urte daramatzagu Egape dantza talde bezela Guk 10 urte daramatzagu badaukagu jadanik nibela Bizi bazara herrixka baten edo ikasi baduzu Egape agian zu ere hasiko zinen gurekin dantza pixka bat ikasten.

2007TIK 2017RA

1998 urtean Urnietako Egape Ikastolak dantza sustatzeko ikastaroak jarri zituen martxan. Egitasmo horri bultzada emateko asmoz, Urnietako guraso talde bat bildu eta 2007an Egape dantza taldea sortu zuten. Ordutik, elkartearen helburua urnietarengan dantza tradizionala sustatzea eta oholtzaratzea izan da.

Urteek aurrera egin ahala, dantza taldea izugarri indartu da, koreografia, presentzia eta dantzari kopuru aldetik. Jaialdiaren lehenengo ekitaldian, esaterako, 5-13 urte bitarteko 120 dantzari irten ziren plazara. Hamar urte geroago, ordea, 4-60 urte bitarteko 230 lagun aritzen dira dantzan.

Ibilbide honetan ezinbestekoa izan da Edu Muruamendiaraz

irakasleak egin duen lana. Bere esanetan, dantzariengan heldutasuna ikusten du: "Garapen izugarria sumatzen dut dantzariengan eta kalitatean hobetzen joaten dira urtez urte". Bestalde, alde artistikoari dagokionez, urtero koreografia berriak sortu edo aurretik zeudenak moldatzen dituzte, dantzari taldearen arabera: "Sormen prozesu horretan dantzarien ekarpenak ezinbestekoak dira eta sortzen diren dantzen parte bihurtzen dira".

"Plazara plazerez" ikuskizuna, hain zuzen, prozesu honen adierazgarri izango da, taldean ohikoak bihurtu diren koreografiak bereziki emanaldi honetarako sortutako koreografiekin nahastuko direlako. Dantzariak azaldu dutenez, atzean lan handia dago eta orain azken orduko entseguetan dabilta guztia ondo atera dadin. Larunbatekoari begira motibatuta eta itxaropentsu daude.

IN-FUSIOAK EKAINAREN 16AN

Aukeran dantza konpainiak 20 urte bete ditu aurten eta, taldearen erreferentzialtasuna Urnietan kokatzen denez, dantza saio ezberdinak antolatu dituzte ostiralerako. Hala, gaueko 22:00etan Aukeran konpainiak ikuskizuna eskainiko du San Juan plazan. Zortzi dantzari osatuko duten ikuskizun garai-kide eta berritzaile honetan, euskal eta munduko folkloreak eritmo eta doinuak uztartuko dira.

Egun berezi horretarako, gainera, Judith Argomaniz dantzari eta koreografoa gonbidatu dute ilunabarrean bi ikuskizun eskeini dituzan San Joan plazan: Lauesku 18:30ean eta Hooked 20:00etan.

Ikasturte amaierako jaia Presentacion de Marian



Euskal dantzak Presentacion de Maria ikastetxeko ospakizunean.

Joan zen larunbatean Urnietako Presentacion de Maria ikastetxeak ikasturte buketarako festa ospatu zuen. Goizean, kirol mailako finalak jokatu ziren. Ikasleek pilota, eskubaloi, saskibaloi eta futbol partidatan euren dohaiak erakutsi zituzten.

Kirolak dantzari txanda eman zion, zeinean adin

guztietako ikasleek beren dantzatzeko gaitasuna erakutsi ahal izan zuten. Seigarren mailako agurrarekin amaitu zen goizeko ekitaldia. Ondoren paella jatea egin zuten. Festak arratsaldean zehar izan zuten jarraipena. Egun osoko festa, beraz, Presentacion de Maria ikastetxean.



Jolasak eta paella jatea izan ziren jailetako hitzorduetako bi.

Astean bitan zabalik



Bake epaitegia astearte eta ostegunetan egongo da zabalik.

Errekalde kaleko lehen zenbakian aurkitzen da Bake Epaitegia. Orain arte, astelehena, asteazken eta ostiraletan izaten zuten jendearentzako arreta zebitzua, baina ekainaren 19tik aurrera astearte eta ostegunetan egongo da zabalik goizeko 09:00etatik eguerdiko

14:00etara. Gainerako egunetan, berriz, Astigarragako Bake-Epaitegia irekita egongo da. Udalak adierazi duenez, etorkizun batean Urnietan bi egunekin zerbitzua urri geratzen dela ikusiz gero, berriro ere hiru egunetara zabaltzeko aukera aztertuko dute.




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

BETERRI-BURUNTZAKO UDALAK

Gidabaimenaren teorikoa euskaraz atera
eta izan saria irabazteko aukera!



Dakizuna erabili
ez dakizuna ikasteko



2017, ekaina



Kanpai hotsek jaien hasiera iragarriko dute



GOIBURU GOLF CLUB



- Jatetxea
- Udako Ludoteka
- Golf zuretzat

JAIETAN ONDO PASA



Informa zaituzte: 943300845 - Andoain

La Batalla de
Andoain
16 de septiembre
2017

La Bataille
D'Andoain
16 septembre
2017

Die Schlacht
von Andoain
16. September
2017

The Battle
of Andoain
September 16,
2017



ANDOAINGO GUDUA



Jordi Barri

Andoain 2017, irailak 16 larunbata
BEHAR ZAITUGU! EGIZU BAT GUREKIN! (656-782-521)

ZATOZ ANDOAINDAR!! Idatzi: bazkuna@larramendi.org



Aurtengo San Juan jaietako pregoia Alberto Agirre abesbatzaren eskutik dator

ABESBATZAKO KIDEEK USTE DUTE PREGOILARI IZATEKO ANDOAINGO KULTUR BIZITZAREN ALDE JARDUTEAGATIK HAUTATU DITUZTELA. SAN JUAN BEZPERAN PREGOIA IRAKURTZEARI EHINGO DIOTE, ARRATSALDEKO ZAZPIRETAN HASITA.

Harridura hasieran eta poza ondoren. Horiek izan dira abesbatzako kideek sentitu dituzten sentipen nagusienak azken asteetan, izendapena jakin dutenetik. Abesbatzaren zuzendaritza batzordea osatzen duten Jexus Mari Beraza, Kontxi Arin, Espe P. Arriluzea, Jexus Mari Otamendi eta Maria Pilar Letamendi elkartu egin dira, Aiurriri adierazpenak egiteko asmoz.

“Herriko elkarteek eta herritarrek egiten diguten aitormentzat hartu behar da izendapena. 35 urtetan kantagintza zabalduz herriko kulturaren alde egin duguna estimatzen duten seinalea da, eta hori da baloratzen duguna batez ere”.

Pentsatua daukate zer egingo duten pregoia irakurri eta jaien hasierako itxareroaren jaurtiketan oinarritzen den ekitaldi horretan. “Olagaino txistulariekin kalejiran hurbilduko gara Goikoplazara, eta abesbatza osatzen dugun 25 kideak udaletxeko balkoira igoko gara. Goitik, agurra abestuko diegu plazan biltzen diren herritarrei, eta pregoia irakurriko dugu ondoren”.

ABESBATZA HERRIKOIA

35 urte bete ditu Joxean Pascualek zuzentzen duen Alberto Agirre abesbatzak, eta urte horietan guztietan nortasun herrikoari eutsi diola adierazi dute. “Gu beti-beti azaldu gara prest Andoaingo kultur giroa aberasteko, nola edo hala dakiguna eginez, kantatuz alegia. Inoiz ez diegu ezetik esan herritik heldu zaizkigun parte hartzeko proposamenei: San Juan zein auzoetako jaietan, folklore jaialdietan, euskara eta euskal kulturaren aldeko ekitaldietan, kale ikuskizunetan, edonori eskerrak emateko omenaldietan... Jendea akaso ez da konturatuko, baina herri baten zatitza oso garrantzitsua da abesbatza edukitzea. Taldean abestutako musikak jantzi egiten du edozein eratako kultur ekitaldia; musikak jendea batzeko edota alaitzeko... balio izaten du”.

Alberto Agirrek Andoaingo kultur bizitzarekin erakusten duen inplikazioa adieraz dezakeen datua izan daiteke honakoa: urtean, herrian bertan, 32 bat emanaldi eskaintzen ditu. “Orfeoi famatuena ez ere dira kopuru horretara iristen!”.

Nolanahi ere, abesbatzak eduki zituen garai oparagoak, kanpotik maiz deitzen ziotenean abestera joan zedin; behin baino gehiagotan gaudituz zituzten Euskal Herriko mugak (Madril, Burgos, Galizia...), Andoaingo kultur enbaxadore bihurtuz.



Alberto Agirre abesbatza Santa Krutz elizan, Josean Pascual zuzendari duela.

ARNAS BERRIEN FALTA

Aspalditik abesbatzan kantuan hasi ziren pertsona berberak jarraitzen dute gaur egun ere. “Ez zaigu jende gazterik hurbiltzen, eta gaudenok adinean aurrera goaz. Noiz arte jarraituko ote dugun? Gorputzak eta ezarriak uzten diguten bitartean... Urteak daramatzagu asteroasteroko entseguen dinamikarekin; musika maite dugunez eta emanaldiak maiz dauzkagunez, ez dugu motibazio berezien premiarik”.

Belaunaldi berriek lekukoa hartu ezinaren arazoa ez dela Alberto Agirrerena soilik zehaztu nahi izan dute. “Abesbatza guztien ajea da, egun. Egin kontu, Donostiako Orfeoia edota Easo abesbatza ere ahots berrien bila dabilta aspalditxotik. Iraganean nahikoa zen lau eus-

kaldun elkartzea abesbatza osatzeko, baina akabo garai aberats horiek! Gainbehera doa abesbatzen kultura. Hezkuntzan apenas lantzen den, eta animatzen diren ahots berriei ere kosta egiten zaie eustea abesbatza batek funtzionatzeko eskatzen duen entseguen dinamikari eta konpromisoari”.

35 URTETAKO IBILBIDEA

1982an jaio zen Alberto Agirre abesbatza; Joxe Goikoetxea, Joxe Mari Huizi eta Jose Luis Etxeberriak jarri zuten abian, eta Pio Huizi animatu zuten zuzendari lanak bete zitzaizkien.

Abesbatza mistoa izan zela hasieratik, nabarmendu nahi izan dute zuzendaritza batzordeko kideek; orain gauzarik ohikoena dena, ez zen horrela hamarkada

batzuk atzerago. “Iraganean, musika korala oso lotua joan zen erlijio katolikoarekin; Elizaren ardurapeko Mariaren Alaben edo eta Luistarren kongregazioek izugarri lantzen zuten kantua, tripleak izaten ziren. Hala ere, bi sexuek nahastuta ezin zuten abestu, eta elizako kororan, adibidez, neskek galarazita zeukaten sartzea. Gizonezkoek hartzen zuten protagonismo osoa”.

Dena esatera, Alberto Agirrek eduki zuen aurrekaririk Andoainaren, mistoa izan zena gainera. “1968an, Juan Batista Barandiaranek Beti Abeslari abesbatza mistoa sortu zuen. Iraun zuen urteetan Tolosako abesbatzen lehendabiziko lehiaketetan parte hartu zuen eta baita bi disko grabatu”. Agudo 50 urte beteko dira abesbatza hura sortu zela, eta Alberto Agirreko kideek badute gogoratzeko asmoa, ekitaldi baten eskutik.

EMANALDIEN AGENDA, GAINEZKA

Urtetan aurrera doazen arren, Alberto Agirre abesbatzako kideak ez dira geldirik egotekoak, eta horren adierazgarria da datozen egunetan daukaten agenda, edozein urduritzeko adinakoa: ekainaren 21an, Pedro Aizpuruari eskainiko zaion omenaldi-kontzertua San Martin elizan; ekainaren 23an, 19:00etan pregoia eta ordu erdi geroago, Agustín Leitzaren omenezko Salbe Gorena; egun bereko gauean, San Juan suaren inguruko jaia, Goikoplazan; eta azkenik, ekainaren 25ean, Olagain txistulariekin batera kontzertua Goikoplazan.



Jexus Mari Beraza, Espe P. Arriluzea, Kontxi Arin, Jexus Mari Otamendi eta Maria Pilar Letamendi zuzendaritza batzordeko kideak, eta Miren Zarraga urtetan abesbatzako abeslaria izan dena.

Jaien hasiera iragartzen duten kanpai hotsak

JOXERRA KARRERAK ASTINTZEN DITUEN SAN MARTIN ELIZAKO KANPAIEK EMATEN DIOTE HASIERA SAN JUAN GAU MAJIKOARI. DUELA HAMAZAZPI URTE EGIN ZION URTEROKO ERRITUARI. AURTEN LAGUNTAILEA IZANGO DU, EKAITZ OLLO HERRIKIDEA.

Karrerak, 22:30ak jo bezain pronto, dorrean dauden lau kanpaietatik bi jotzen ditu, San Juan gauaren hasiera iragarriz, tradizioak agintzen duen eran. Berez lau kanpai daude San Martin elizaren dorrean. Bi txiki alboetan, ordu laurden, ordu erdi eta orduak markatzen dituztenak, sistema mekaniko baten bitartez. Dorrearen erdian, berriz, beste bi daude zintzilikatuta, handiagoak direnak; bada, horiek astintzen dira San Juan egunaren bezperan, eskuz.

Gau seinalatu horretan geratzen dira kanpai-jolearen esku. Mutu egoten dira bestelakoan. Batek 2.500 kilotik gora pisatzen du, adituek diotenez Gipuzkoako handiena omen.

Karrerak hiru aldiz segidan astintzen du bietan txikiena den kanpaia, eta behin handiena; joko bikoitz hori hogei-talau txandetan errepikatzen du. Horrenbestez, egunak dituen ordu bakoitzari joaldi bat egokitzen zaio. Erritual hori amaiturik, dorrearen erdian eta plazari begira dagoen erlojua, ohial gorri batez ezkutatu egiten du, festari ekin zaiola eta hartaz gero, orduari ez begiratzeko eta gozatzeko gonbitea irudikatuz.



Joxerra Karrera eta Ekaitz Ollo Tolo kanpai-dorrean.

SAKRISTAUAREN LANAK

San Martin elizako lau kanpaiak Joxe Eizmendi sakristauaren ardurapean egon ziren XX. mendeko urterik gehienetan. Hamabi urterekin monagilloaren abitua jantzi zuen lehenbiziko aldiz Eizmendik, eta gutxira heldu zion kanpai-jolearen lanari; XX. mendearen hondarrean, 88 urte bete zituela utzi behar izan zion jardun horri. Ordurako Jon Unanueri erakutsi zizkion ofizioaren zenbait ezaugarri.

Ederki asko menderatzen zituen Eizmendik kanpaiak jotzeko hamaika erak, eta Andoainen ez zen giro izaten lau kanpaiak batera lanean jartzen zituenean. Hitzuna zen gizona eta makina bat pasadizo kontatu izan zituen. Horietatik entzungarriena akaso, 1928ko otsailaren 28an gertatutakoa. Orduan bai gertatu burrunba apartekoa! Lau kanpaiak goitik

behera jausi eta Goikoplazako zoruraino iritsi zirenean, tximista batek eliza-dorrea lehertu ostein.

Karrera 1999an Udalean zinegotzi gisa hasi zen, eta zerbitzuen saileko ardurak hartu zituen segidan. Erdi txantxetan adierazi zioten berari zegoziola kanpai-jotzearen kontu horiek, eta halaxe hartu zuen bere gain erritualaren berri zearena urtero; Unanuek eman zizkion jakin beharreko ezagupideak.

Urte guzti hauetan, bakarrik zein laguntzaileekin jardun izan du. Berak adierazi duenez, pertsona bakar batek astindu ditzake bi kanpaiak, ez baitu zailtasun tekniko handiegirik eskatzen. Nolanahi ere, lan nekagarria egiten da azkenerako, mantendu egin behar baita kanpai hotsen erritmoa edo kadentzia.

Urtero zenbait pertsona igotzen da Karrerarekin batera dorrera, eta horien artean, Juantxo Arruti eta Itziar Gutierrez aritu izan dira laguntzen azken aldian, kanpai-jole gisa. Aurtengoan, Ekaitz Ollo Tolo prestatuko da Karrerari laguntzeko. Txalapartaria da Ollo, euskal tradizioen maitale amorratua, eta hurrengo urteetan kanpaiak jotzearen erritualari segida emateko asmoa agertu du.

KOMUNIKAZIO TRESNA

Joxeramón Karrerak, eliz-dorreetako kanpaien unibertsoan eta kulturaren sakontzeko aukera eduki du urte hauetan. Alde horretatik, gogoratu nahi izan du eliz-kanpaiak erlijio katolikoarekin lotzen badira ere, historikoki, funtzio komunikatzailea eduki izan dutela gizarte-

an. Herriko eraikuntzarik altuenean, hots, elizan, jarri ohi ziren kanpaiak. Herriko gertakizun handiak zein txikiak lau haizetara zabaltzeko, eta herritarrei aditzera emateko funtzioarekin. Izan suteak nahiz izan bestelako ezbeharrak, izan batzarretarako deialdiak, izan jaietarako gonbitea, izan jaiotzak, izan heriotzak, izan ezkontzak... Informazio iturri ezin azkarragoa zen.

Karrerak zehaztu duenez, mezu bakoitzak zeukan berezko hotsa; kanpaien bitartez, konparazio batera, jakitera ematen zen herriko pertsona bat hil berria zela, zein sexukoa zen, eta ez hori bakarrik, baita ere haurra, gaztea ala heldua ote zen. Hilaren 23an, lau haizetara jaien hasiera iragartzeko komunikazio tresna izango da.

MUJIKA TOLARETXIPI ANAIAK
MAPFRE
ANDOAIN

Jai zorientsuak opa dizkizuegu

Eskola kalea, 8 / ☎ 943 592 307 / Faxe: 943 300 161 / 20.140 ANDOAIN / e-posta: imujika@mapfre.com

Aterpe

Gosariak
 Razioak
 Pintxoak
 Bokatak
 Plater konbinatuak...

Eguneko menua 10,50€

Gokoplaza, 7
 943 117 986
 672 725 978

Gorá Sanjuanak

Aurten bi danborrada

AGUSTIN LEITZA DANBORRADA EKAINAREN 23AN ARITUKO DA, ANDOAINARRA ESTRATINEKOZ IRTENGO DA HILAREN 24AN.



Andoainarra elkarteko danborradako kideak, astearte iluntzeko entseguan La Salle Berrozpe ikastetxean.

Andoainarra elkarteak danborrada taldea sortu du San Juan jaiei begira. Lehenbiziko aldia izango da eta bere kideak entseguetan murgilduta dabilta, ekitaldia txukun irten dadin. Laurogei bat bazkide eta lagun animatu dira Andoaingo kaleetan zehar aritzeko hain zuzen ere, eta astean bitan biltzen ari dira La Salle-Berrozpe ikastetxeko jolas tokian. Egundoko ilusioa antzematen da entseguetan, jendaurrean danborra jotzen duten lehenbiziko aldia izango baita askorentzat.

San Juan egunean bertan irtengo da kalera elkartearen danborrada. Galar-din kokatzen den egoitzan bertan jarri dute biltzeko gunea, 18:45etan. **Joxe Mari Oartzabal** musika konposatzaileak sortutako elkartearen ereserkia joko dute, ondoren Goikoplazara abiatzeko.



Ivan Gonzalez zuzendari lanetan.

Txuleta eta sonbrilla

AURTENGO TXULETA JATEAN LEHIAKETA DIBERTIGARRIA ANTOLATU DUTE. IZEN-EMATEA ZABALIK DAGO.



Auzoetako jai batzordeetako kideek sustaturiko bazkaria da.

San Juan egunean auzoetako jai batzordeek herri bazkariaren edizio berria antolatu dute, berrikuntza dibertigarri batekin. Egun eguzkitsua aurreikusten dutenez, eguzkitik babesteko sonbrilla eramaten dutenen artean lehiaketa egingo dute. Adi, zeren eta ezaugarri ezberdinak kontutan hartuko dituzte. Eta horietako bat sonbrilaren zatarkeria izango da. Geroz eta sonbrilla itsusiagoa eraman, are eta deigarriagoa izango da. Horiexek izan daitezke aurten irabazle izateko hautagaiak.

Herri bazkaria txuleta jatea da, auzolanean prestatzen dena. Ekainaren 24an izango da, larunbatarekin, eguerdiko 14:00etatik aurrera. Otordua Goikoplazako pilotalekuan egingo dute. Honako menua prestatuko

dute antolatzaileek: txorizo egosia, entsalada mistoa, txuleta, gazta, irasagarra eta intxaurrak. Edateko, sagardoa, ardoa eta ura aukeran jarriko dute. Ekainaren 21a arte txartela eskuratzen duenak 20 euro ordainduko ditu. Hamabi urte arteko haur eta gaztetxoek kasuan 10 euro. Txartelak salgai daude Elizondo eta Txitibar tabernetan.

Aldiz, txartela egunean bertan erosten duenak 25 euro ordaindu beharko ditu.

Bazkari jendetsua izango da, aurten Axeri Dantzako kideek bertan bazkalduko baitute. Auzoetako jai batzordeetako kideek sustaturiko bazkaria andoaindar guztien hitzordu bilakatzeko nahiko lukete. Deialdia, beraz, irekia da egun atsegina igarotzeko nahi duenarentzat.

Ondo
pasa
San Juan
jaietan

Gozatu jaiaz,
baina ez izan konplize!

JAIETAN ERASO SEXISTARIK EZ!

Gaztetxoak haurraren bizitza salbatu zuenekoa

1972ko SAN JUAN JAIETAN JACINTO DIAZEK OMENALDI BEREZIA JASO ZUEN, AURREKO URTEAN ORIA IBAIAN ITOTZEKO ZORIAN ZEGOEN FELIX PEREZI BIZIA SALBATZEAGATIK. JACINTOK HAMAHIRU URTE ZITUEN, ETA FELIXEK ZORTZI.

San Juan jaien egitarauan, 1972. urtean, zera irakur daiteke, haurren marrazketa eta idazketako lehiaketen eta txotxongiloen artean: "Andoingo Udalak hamalau urteko Jacinto Diaz oroigarria emango dio". Zer zela eta? Hauxe arrazoia: Jacinto heroizat zeukaten Andoainen, hilabete batzuk lehenago Felix Perez bizia salbatu ziolako.

Jacinto Diaz Txinti-k eta Felix eta Manolo Perez anaiek jaietan egin zen aparteko ekitaldi haren zergatia azaldu diote Aiurri, 1971ko urriaren 16an bizitu zuten gertakizun ahaztezina, alegia. Hamahiru urte zituen orduan Diazek, zortzi eta bederatzia anaiek. Larunbata zen, eta Etxeberrieta eta Karrikako gainerako gaztetxoaren antzera, futbol zelaiko inguruetan jolasten ari ziren hirurak. Futboleant Jacinto eta azpiak lokatzez eta gainak aparrez edukitzen zituen Oriaren ibai-bazterrean bi anaiek. Alfaro etxearen parean, errekonduan txalupa zahar bat egoten zen, eta harekin jolastera abiatu zen zenbait ume; Felix eta beste bi lagun, hain zuzen. Alferrik izan ziren Manolo anaiek eman zion aholkua: "bera baino handiagoak zirela beste biak, berak ez zekiela igeri egiten eta kontuz ibiltzeko esan nion, baina ez zidan kasurik egin".

Kontua da ibaian barrena sartu, eta ur emariak pare bat metroko sakonera zeukan putzuraino iritsi zirela. Halako batean, zast! txalupa irauli eta hiru mutilak uretara erori! Felixen bi lagunek nola edo hala errekonduan iristea lortu zuten, baina Felix bera hantxe bertan geratu zen, itolarrian. Manolok ere ez zekien igeri egiten, eta ziztu batean, futbol zelaira abiatu zen laguntza eske, "anaia itotzen ari zela" garrasika. Jacintok futbol partida utzi, eta korrika batean jo zuen errekarantz. Bi aldiz pentsatu gabe bota zuen burua uretara, Felixi laguntzera. Trebatu samarra zegoen igerian ordurako Leitza-rango ibaian, eta horrek segurtasun pittin bat eman zion.

Metro eta hogeita hamar zentimetro eskas neurtzen zuen Felix lepotik heldu, eta berebiziko eginahalak eginda, Sorabilla aldeko errekonduan eramatea lortu zuen.



Felix eta Manolo Perez anaiek eta Jacinto Diaz elkartu zituen Aiurrik orain 46 urte gertatuko gertakizuna gogoan hartuta.

KONORTEA GALDUTA

Konorterik gabe zegoen Felix, eta bizkortzeko ariketak egin zizkion Jacintok. Egun hartan inguruan zebilen Txitibarko Regino Otaegik ere lagundu zion Jacintori saiakera horretan. Bere onera etortzen ez zela-eta, Kordoba baserriko etxekoandre Mariari laguntza eskatu zioten; emakumeak Renault 4L autoa zeukan, behi-esnea

herrian partitzeko erabiltzen zuena. Felix besoetan hartu, lauak autoan sartu, eta Ramon Dorronsoro herriko medikuarengana abiatu ziren abailan.

Medikua mutikoa suspertzen saiatu zen modu batera edo bestera, eta berehala Donostiako ospitalera eramane zuten. Egun batzuk egin behar izan zituen bertan larrialdi egoeran, baina onik atera zen.



Hamalau urteko Jacinto, Andoingo Udalaren esker oneko oroigarria Migel Anton Irigoras zinegotziaren eskutik jasotzen, 1972ko Sanjuanetan.

46 urtez atzera begira jarrita, hirurek ere miraritzat jotzen dute Felix bizirik atera izana trantze hartatik, nahiz eta konortea galduta egon denbora puska batean. Kalkulatzen dutenez, hiru-lau bat minutu igaro ziren Felix ibaiaren zurrumbillean sartu zenetik Jacintok ur bazterrean eramane ahal izan zuen arte.

Felixek berak, makina bat alditan hausnartu izan du, eta azalpen logiko bakar bat ikusten du: "uretan murgilduta, ezin estuago ikusi nuen nire burua, nire artean esanez, hiltzera noa eta hiltzera noa. Bada, senak edo ez dakit zeinek aginduta, erreazioz, gorputza dena tentsio batean jarri zitzaidan, eta konortea galtzeaz gain, ahoa itxi-itxita eduki nuen denbora gutxian. Horri esker ziurrenik, ur tantarik ez zen iritsi nire biriketara".

PLUS ULTRA OPERAZIOA

Gertakizun hura oroitzen duten bi oroigarri dauzka etxean Jacintok: Udalak emandako oroigarriaz gain, Ondarretako ikastetxeiko ikaskideek oparitu zioten erlojua. Bestalde, kontatu duenez, Plus Ultra operazioan parte hartzeko atarian geratu zen orduan. SER kateak, gaztetxoei begira, 60 eta 70eko hamarkadatan urtero egin ohi zuen irratsaio-lehiaketa bat zen hura. Espainian zehar heroitasun ekintzaren batean nabarmendu ziren gazteak, hamabost bat, Madrilan saritu egiten zituzten, eta Franco diktadoreak eta Aita Santuak harrera egiten zieten, audientzia banatan; gainera, ondorengo urteetan, unibertsitateko bekak eskaintzen zizkieten. Frantsiskoak izugarri babesten zuen ekimena izaten zen.

Bada, Domingo Iurramendi Sorabillako apaizak, Jacintoren aitarekin hitz egin ostean, txostena idatzi zuen semearen balentria kontatuz eta bere giza balioak azalduz; txostena Madrilera bidali zuen, 1972ko programan sar zezaten. Jacintok adierazi duenez, hasieran bere hautagaitza kontuan hartu zuten kanpaina horretako bultzatzaileek, baina nonbait, azken unean bazterrean utzi zuten, ohartu zirenean hamalau urte bete berriak zituela, ekainaren 11n hain zuzen.

JOSEBA altzariak *Ondo pasa festak!*
 ■ Somier elektrikoak
 ■ Latexko koltxoak
 ■ Altzari osagarriak
 Kaletxiki, 10 • ANDOAIN • Tel.: 943 590 761

FRANCISCO MENDIKUTE
HARATEGIA
URDAITEGIA
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu
 • Esne produktuak
 • Hautatutako kontserbak eta kalitatezko okela, etab.
 Kaletxiki, 15 • 943 590 258 • ANDOAIN

STOP
LIBURUDENDA
Ondo pasa Sanjuanetan
 Agustin Leitza, 27
 943 591 603
 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)

ondarreta ikastetxea
 ANDOAIN
LEIZARAN
 INSTITUTUA
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Sua udaletxeko balkoitik

HAMAR HERRITARREK SUA BALKOITIK IKUSTEKO AUKERA IZANGO DUTE. IZEN-EMATEA ZABALIK DAGO ORAINDIK.



Zozketan bost izen aterako dituzte, bakoitzak nahi duen laguntzailearekin ikusi ahal izateko.

Suak ikusteko toki gutxi egongo dira udaletxearen balkoia baino egokiagoak. Elizondo etxea, akaso, eta baita San Martin elizako kanpadorrea ere. Udaletxeko balkoiak, ordea, xarma berezia du. Bertatik bideratzen baita jaien hasierako suziria, eta neurri handi batean, ekitaldia udaletxeari begira egiten da. Gaur arte, udaletxea San Juan suaz gozatzeko aukera hori oso lagun gutxiren esku zegoen. Asko jota, bi dozena. Eta horien artean gehien gehienak Udal ordezkariek.

Aurtengoan Andoaingo Udalak, alkatere eta zinegotziekin batera, San Juan sua eta haren inguruan antolatzen diren ekitaldiak udaletxeko balkoitik ikusteko aukera eskainiko du. Eta adi, zeren

eta izena emateko epa zabalik dago oraindik. Hamar lagunek izango dute zorte edo ohore hori eta aukeraketa zozketa bidez egingo dute.

Interesa duenak www.andoain.eus webgunean, Atarian arreta bulegoan edota Bastero kulturgunean izena eman dezake zozketarako, datorren ekainaren 21a baino lehen.

Zozketa ekainaren 22an izango da eguerdiko 12:00etan hasita, udaletxean bertan. Zozketa horretan bost izen aterako dituzte, bakoitzak nahi duen laguntzailearekin San Juan suaz gozatu ahal izateko. Ekimenak lehen egunean hainbat herrikideren interesa piztu zuen, deialdia egin eta berehala hogei eskaera jaso baitziren.

Sua egiteko baimena

UDALETXEAN ESKATU BEHAR DA BAIMENA DATORREN EKAINAREN 18A BAINO LEHEN.



San Juan sua Karrikan, 2014. urtean.

Iraganean San Juan sua herriko auzo ezberdinetan egiteko ohitura handiagoa bazen ere, oraindik ere ilusio bizitz aritzen dira hainbat tokitan. Berezi, Karrika auzoan edota herriguneko hainbat baserrietan.

Udalak suaren inguruko ospakizunen segurtasuna bermatu nahi du eta duela egun batzuk oharra zabaldu

zuen: "San Juan sua egiteko interesa dutenek baimena eskatu beharko dute udaletxeko Ataria Zerbitzuan. Aurkeztu beharreko inprimakian sua egingo den tokia zehaztu beharko da baita arduradunaren datuak ere".

Sua egiteko eskaera aurkezteko epea datorren ekainaren 18an amaituko da.

www.aiurri.eus jaietan

San Juan jaietan Aiurri.eus webgunean egitaraua eskegiko du, egunez eguneko hitzorduen berri emanez.

Horrekin batera, jaietako argazki-bildumak eta bideoak zabalduko ditu webgunean eta sare sozialetan.

Andoaingo LHI Lanbide Hastapeneko Ikastetxea

15-17 urte bitarteko gazteei zuzendutako prestakuntza programa:

- Oinarrizko Lanbide Heziketa (Erdi-mailako ikasketekin jarraitzeko aukera)
- Ibilgailuak mantentzea (karrozeria)

Matrikula ekainean zehar.

Azken eguna: uztailaren 19ra arte

Tel.: 943 300 816 | cip-lhi@andoain.eus

Olagain auzoa, 7 (Opua pabilioia) | 20140 Andoain

San Juan jaiak Andoainen, ospakizunez beteta

OSPE HANDIKO MUSIKA TALDEAK, URTEURRENA BETE DUEN ELKARTEAREN TXUPINAZOA, KIROL MAILAKO HITZORDUAK... ANDOINGO JAI EGITARAUA EKITALDIZ BETERIK DATOR.

Ekainak 23, ostirala

- 16:30 Haur eta gurasoek festetako murala margotuko dute Goikoplazan.
- 17:00 Sanjuanetako I. Toka lehiaketa Nagusia Goikoplazan. Izen-emaitea 16:30etik aurrera.
- 17:00 Ping pong txapelketa Gazte Lokalean.
- 18:15 Sanjuanetako kartel lehiaketa, sar-banaketa Urigainen.
- 18:30 Buruhandiak eta erraldoiak, trikitilariak, txistulariak eta Gora Kalletxiki txarangaren kalejirak herriko toki desberdinetatik Goikoplaza aldera.
- 19:00 Pregoia Alberto Agirre abesbatzaren eskutik.
- 19:30 Alberto Agirre abesbatza eta Udal musika eskolako abesbatzen kontzertua San Martin elizan.
- 19:30 Koadrillen arteko pintxo dastaketa Gazte Lokalean.
- 20:00 On Pedro Aizpuruaren Salbe Gorrena San Martin elizan.
- 20:00 Pilota partidak Arraten:
 - Iturzaeta Memorialaren finala.
 - Palista profesionalen jaialdia.
- 20:15 Alkatearen eta udalbatzaren Soka-dantza Goikoplazan.
- 22:00 Olagain txistulari bandaren kalejira San Juan zortzikoa joz. Ibilbidea: Etxeberrieta, Zumea, Kale Nagusia, Goikoplaza.
- 22:30 San Juan sua suziri, txalaparta eta kanpai-errepikarekin.



Axeri dantza ekainaren 24an izango da, larunbarekin. Saio nagusia eguerdiko 12:00etan eskainiko dute Goikoplazan. Inoizko jendetsuena izango da.

Ekainak 24, larunbata

- 22:45 Agustin Leitza elkartearen danborrada udaletxe azpiko taula gainean.
- 23:30-03:00 Gozategi eta Reincidentes tadeak zuzenean, Nafarroa plazan.
- 09:00-15:00 Colombaire usakume tiroketa Pagamendin.
- 11:00-13:00 Xakea Goikoplazan.
- 11:00 Umeen eta gazteen eskuzko finalak Arraten.
- 11:00 Meza nagusia San Martin parrokan, Alberto Agirre abesbatzak kantatua.
- 12:00 Axeri-dantza Goikoplazan.
- 13:00 Kantu kalejira, txalapartaz lagunduta, Goikoplazan hasita.



**Ondo
pasa
Sanjuan
jaiak!**

Nagusia, 6 ANDOAIN
943 59 12 24

Bitxikeriak. Arropa



Zatoz jaietan!

AKER BELTZ

Taberna



Nafarroa plaza, 1-B
20140 ANDOAIN
☎ 943 300 846





- Kafetegia
- Ogitartekoak
- Razioak
- Plater konbinatuak
- Pizzak

Irailetik ekainera, ostiral gauetan monologoak egiten ditugu hilean behin

Berezitasuna: Torreznoak

Tel.: 943 300 603 Goikoplaza, 6-7 - Andoain



ikastolenelkartea

**JAIETAN
ERE
EKIN
EUSKARAZ**

Txistoki pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525
andoain@ikastola.eus
www.andoainkastola.eus



San Joan jai zoriontsuak opa dizkizuegu

- 14:30 Txuleta jatea Goikoplazan. Ondoren Sakatu elektrotxarangaren irteera.
- 18:00 Bizikleta festa Goikoplazan. Bakoitzak bere bizikleta eta kaskoa ekarriko ditu.
- 18:00 Herri kirolak Goikoplazan. Aizkoran, trontzan, korrika Xabier Zaldua-Donato Larretxea eta Aratz Mugerza-Jon Rekondo. Aizkora, trontza: Leire Astiazaran eta Itxaso Onsalo. Iparraldeko jokoak: Jose Martin Bustinza Tubi Euskadiko txapelduna (lastoa bota, lastoa altxa eta ingude altxatzea).
- 18:45 Andoaindarra elkarteko danborradaren irteera Goikoplatatik.
- 19:00 Plaza dantzak Nafarroa plazan.
- 19:15 Bikoteen kros mistoa. Irteera Goikoplazan hasi eta helmuga Pio Barajo kalean. 5 kilometro-tako ibilbidea.
- 19:30 Bertso jaialdia Goikoplazan: Uxue Alberdi, Amets Arzallus, Maddalen Arzallus, Unai Iturriaga, Xebastian Lizaso, Aitor Mendiluze. Gai-jartzailea: Ion Beloki.
- 22:30 Zezen-suzkoa Goikoplazan.
- 22:45 Tio Teronen Semeak dantza ikuskizuna Goikoplazan.
- 23:30 Trio Medianoche taldea: Boleroak, balsak eta latinoamerikako erritmoak.
- 23:15-03:00 Gatibu eta Laket Nafarroa plazan.

Ekainak 25, igandea

- 10:30-14:00 Artisautza azoka Goikoplazan.
- 11:00-11:30 Patata tortilla lehiaketa Goikoplazan.
- 11:00 Mugaz taldea, Konbo gaztea eta Azelain ballet elkarte Goikoplazan.
- 12:15 Patata tortilla lehiaketaren sari banaketa Goikoplazan.



Cavaltheos Foc pirotekniako kalejirarekin amaituko dira aurtengo jaiak.

- 12:30 Ardo dastaketa eta patata tortilla pintxoak Goikoplazan.
- 12:30 Olagain txistulari taldearen eta gonbidatuen kontzertua Goikoplazan.
- 16:00 Gipuzkoako Txirrindularitza Itzuliaren irteera Goikoplatatik.
- 16:30 Pilota partidak Arraten: Palako gazteen finalak, zestako gazteen finalak eta zestako nagusien finalak.
- 16:30-20:00 3x3 Saskibaloitza torneo Nafarroa plazan. Izen-ematea: Ganbara tabernan ekainaren 25ean.
- 17:00-20:30 Artisautza feria Goikoplazan.
- 17:30 Triana taldea Goikoplazan.
- 18:15 Gipuzkoako Txirrindularitza Itzuliaren helmuga Plazaola kalean.
- 18:30 Gora Kaletxiki txaranga, Juanita Alkain plazatik abiatuta.

- 18:30 Soinuak musika eskolako ikasleak Goikoplazan.
- 19:00 Tomaxen abenturak: "Festara" haur antzerkia Erretore-etxe belardian.
- 19:15 Batukada feminista, Nafarroa plazatik Goikoplazara.
- 20:00 Kontzejupe pilota partidak Goikoplazan.
- 20:00 Udal musika eskolako banda Goikoplazan.
- 22:30 Zezen-suzkoa Goikoplazan.
- 22:45 DJ Bull eta disko festa Nafarroa plazan.
- 22:45 Bakartxo & Joseba dantza eskolaren erakustaldia Goikoplazan: tangoa, salsa, funky, sabel dantza eta melburne shuffle.

Ekainak 26, astelehena

- 11:30-13:30 Haur parkea Goikoplazan.
- 13:30 Agintarien harrera laurogei urteko aiton-amonai udaletxe aurrean.
- 14:00 Laurogei urteko aiton-amonon bazkaria Basteron.
- 17:00-19:30 Haur parkea Goikoplazan.
- 17:00-19:00 Egurrezko joko erraldoiak Makaldegian.
- 18:00 Haur danborrada ikastetxeetako ikasleen parte hartzearekin, Zumea plazatik Goikoplazara.
- 19:30 Dantza saio erraldoiak Goikoplazan:
 - Funky emanaldia La Salle-Berrozpeko eta Klaap dantza eskolako ikasleen emanaldia.
 - Zumbaton: Zuena elkarteko emakumeak eta Pame-zumbako ikasleak.
- 22:30 Cavaltheos Foc pirotekniako kalejira Juanita Alkain plazatik Goikoplazara.

Jaien jarraipena: www.aiurri.eus
Argazkiak, bideoak, egitaraua egunez egun.

• Festetako zapiak, blusak...
• Baserritar jantziak
• Era guztietako bordatuak (txapelak, banderak...)

Kale Nagusia, 12. ANDOAIN
637 283 224
keinuandoain@gmail.com
www.txapelasybordados.com
www.txapelaketabordatuak.eus

Gora Sanjuan eta Sanpedroak!!

ELIZONDO

FERRETERIA TABERNA

SANJUAN JAIZORIONTSUAKI

La Salle etorbidea, 1- Andoain
Ferreteria: 943 59 03 02 Taberna: 943 59 28 02

Etxeko obradorea: pastelak, pastak, ogi bereziak...

Ondo pasa Andoaingo eta Asteasuko festetan!

gozotegia **arruti**

Zumea 18, 943 593 777 – ANDOAIN
arrutigozotegia@hotmail.com

Udako solstizioa ospatuko dute, hilaren 21ean

EKAINAREN HOGEITA BATEAN SOLSTIZIOA EGUNA OSPATUKO DUTE ANDOAINEN, AMETSONDOA HEZKUNTZARAKO ETA HAZKUNTZARAKO EKIMENAREN ESKUTIK.

Haur jolasak, jolas didaktikoak, aurpegi margoketa, pintxoak..., denetarik egongo da Goikoplazan ekainaren 21eko festan. Eguna ez da hausaz aukeratu. Eli Sanchez Ametsondoa eskola aktiboko hezitzaileetako batek adierazi duenez, “data hori nahita aukeratu dugu, egun horretan ospatzen baitzen San Juan Eguna kristautasuna sartu aurretik”.

Programazio zabala prestatu dute. 17:30etatik hasita musika egongo da, eta hurrek txoko ezberdinak izango dituzte jolasteko: 0-3 gunea, eraikuntza jolasak, aurpegi margoketa eta eskulan txokoa. Gosea pizten denerako pintxoak ere egongo dira. 18:00etan 0-99 urteko haurrentzako jolas kooperatiboak egingo dira, gurasoak ere hurrekin batera jolasteko. Amaieran, 19:15ak inguru-



Ametsondoa taldeko hainbat kide udako solstizioaren jaiak prestatzen ari dira.

ruan suaren inguruan bilduko dira elkarrekin abestuz gitarraren laguntzarekin.

AMETSONDOA EKIMENA EZAGUTZEKO AUKERA APROPOSA

Andoaingo familia eta hezitzaile batzuk sortutako taldea da Ametsondoa, eta ekainaren 21eko festaren bitartez, euren burua ezagutzera eman nahi dute.

Hazkuntza eta hezkuntza eredu aske bat lantzeko espazio bat edukitzearen alde dabilta lanean. “Hezkuntza eta hazkuntza ikusten den horretatik kanpoko beste eredu bat bilatzen dugu”, azaldu du Ametsondoko hezitzaile den Eli Sanchezek. Modu horretan, bakoitzaren esperientziak elkarrekin konpartitzeko espazioa ere bada.

Festara bertaratzaren direnen artean esku-orriak banatuko dituzte.

“Ametsondoa proiektu aktibo bat da, guztion parte hartzea eskatzen duena”



Hezkuntza eta hazkuntza eredu aske bat lantzeko espazioa da Ametsondoa. Andoaingo familia eta hezitzaile batzuk elkartzeko eta sortu duten proiektua da. Bertako hezitzaile den **Eli Sanchezek** azaldu du egiten dutenaren berri.

Hezkuntza eta hazkuntza eredu aske bat sortzeko lanean zabalitate, eta horretarako Ametsondoa izeneko gunea sortu duzue. Zer da zehazki?

Oraingoz gure helburuak hausnarketak elkar trukatzeko eta elkar ezagutzeko dira. Oso denbora gutxi daramagu. Ideia da espazio bat sortzea adinik gabe, gorpuztik gabe, jatorririk gabe. Pertsonak elkartzeko espazio bat izatea hazteko eta

hezteko modu libre batean eta errespetuz. Informatzen eta ikasten gabiltza. Tailer eta hitzaldi batzuk antolatu ditugu. Esaterako, Azkoitiko Bizilore eskola aktibokoak etorri zirenean beraien proiektua aurkeztera, jendeak ikusteko ez dela guk asmatutako ezer, badaudela pedagogia korrante ezberdinak.

Nortzuk osatzen duzue Ametsondoa?

Andoaingo familia eta hezitzaile talde txiki bat gara. Hezkuntza eta hazkuntza ikusten den horretatik kanpoko beste eredu bat bilatzen dugu. Horrek batu gaitu. Bakoitza gure aldetik hasi gara: ni hezitzaile moduan, beste bat ama moduan, beste bat aita moduan... Kezka horrekin hasi gara. Elkar ezagutu ostean elkarrekin hasi gara.

Irekia al da ekimena?

Bai. Orain arte egin dugun guztia doakoa eta irekia izan da. Hemendik aurrerako asmoa horrela jarraitzea da. Norbaitek interesa edukiz gero, edozein dela ere arrazoia, ongiatorria izango da. Sortu dugun Haziera taldeak, esaterako, bideratuago doaz haurdun dauden emakumeentzat edota haurraren lehenengo urteetan dauden gurasoentzat, elkarrekin artean kezken inguruan hausnarketa egiteko. Horrekin abiatu gara, baina ez dugu alboratzen hemendik urte batzuetara haziera talde hori nerabeak dituzten gurasoentzat izatea, adibidez. Ideia komuni-

tatearen kontzeptua berreskuratzea da. Espazioak behar dira epairik gabe elkarrekin esperientziak kontatzeko. Haziera taldearen helburua horixe da. Guraso asko konturatzen dira profesionalak esandakoa –dela medikua, dela edozein profesional– ez datorrela bat bere errealitatearekin. Oso galduta sentitzen dira. Guk eskaintzen dugun moduko espazioa ezagutzeko, eta beste esperientzia batzuk ezagutzeko konturatzen dira badaudela gauzak egiteko beste modu batzuk.

Zein da zuen filosofia?

Momentu honetan hiru ardatz hauek ditugu: euskal kultura, ingurumenarekiko errespetua eta feminismoa.

Nola hartu du jendeak “Ametsondoa” moduko esparru bat edukitzea?

Sentitzen dugu oraindik jendearen buruetan ez dagoela Ametsondoa eta andoain irudi bat. Jendea egingo dugunaren zain ageri da. Distantzia batetik begiratzen digute ea nora goazen ikusiz. Utopikoa dela sentitzen dute esaten duguna. Horregatik gonbita luzatzen diegu kuriositatea duen orori hurbiltzeko guregana, ikus dezaten ez dela utopia bat. Horrelako proiektu baten atzean dagoen gauza bakarra lana dela. Ez dela inolako erokeria, eta posible dela. Nire ustez, denok aurki dezakegu leku bat Ametsondoa.

Egoitza finkorik ba al duzue?

Oraindik ez. Kideren baten etxean edo taberna batean geratu ohi gara. Esparruren bat bilatzen gabiltza, baina oraindik ez dugu diru iturri finkorik. Dirua gure poltsikotik ateratzen da.

Zein ezberdintasun ditu eskola tradizional baten ereduarekin?

Ohiko eskoletan haurra bertan utzi eta bazoaz. Gure ideia ez doa hortik. Ideia da Ametsondoa denon artean sortzea. Eskolan eta etxean esaten denak berdina izan behar du, bestela haurrak erotu egingo ditugu. Egundako ikusten den hori. Ametsondoa proiektu aktibo bat da, guztion parte hartzea eskatzen duena.

Azkoitikoaz gain, badaude eskola aktibo gehiago Euskal Herrian?

Espainiar estatuan badaude 20 urteko ibilbidea duten eskola aktiboak eta alternatiboak. Euskal Herrian berriagoa da korrantea. Nafarroan Tximeleta izenekoa dago, eta Gipuzkoan ere geroz eta gehiago daude. Azken bost urteetan proiektu txiki ugari sortu da. Esan bezala, Bizilorea Azkoitin, Baso eskola Ulián... Eskoletan ere aldaketak ematen ari dira pixkanaka.

San Pedro jaiei ekiteko prest

2017, ekaina



*Zatoz
Asteasuko jaietara*

*Ondo pasa jaietan,
ingurua zainduz,
bizilagunak
errespetatuz*



Asteasuko Udala

Egunez eta gauez dantzan, herriko jaietan

SAN JUAN EGUNA ETA SAN PEDRO EGUNA TRADIZIO HANDIKO FESTAK DIRA, ETA BI EGUN SEINALATU HORIETAN DANTZA EZINBESTEKOA DA. LANDER MUJIKA GAZTEA OINKARI DANTZA TALDEKO KIDEA DA. FESTARAKO GOGOZ DA, JAIEN ATARIAN.

Festak gainean dira, gogotsu al zaude?
Bai, egia esan oraintxe amaitu dut selektibitatea eta festak iristeko zain nago. Buruan festak besterik ez ditut eta motibatuta nago. Lagun artean gainera, aurreko urteko festak eta oroitzapenak oroitzuz ibili gara eta berriz ere festak etortzeko gogoz gaude.

Oinkari dantza taldearen emanaldian behintzat parte hartuko duzu. Zer nolako emanaldia eskainiko duzue?
Hilaren 24an dugu emanaldia eta horrez gain, Asteasuko festetan San Pedro egunean ere dantzatuko dugu. Emanaldi polita izaten da, herriko umeek ere parte hartuko dute bertan eta hurrekin antolatzen diren emanaldiek beste modu baten xarma izaten dute.

Nola hasi zinen Oinkari dantza taldean?
Oinkari dantza taldeak udan ekitaldi bat egiten zuen Arroa auzoan, Vilabonako Santio jaietan eta gogoratzen naiz hura ikustera joaten nintzela eta inbiritan egoten nintzela. Beraz, beste bi lagunekin animatu gin nintzen eta azkenean 16 mutileko koadrilla apuntatu ginen. Egia esan, sekulako esperientzia izan da. Niri dantzak oso aukera politikak eman dizkit bai lagun berriak egiteko eta baita esperientzia berriak izateko ere; oso gustura nabil. Inolaz damutuko ez naizen erabakia da eta mutilak dantza egitera animatzen ditut. Askotan, mutilak lagunak animatzen ez direlako ez baitira animatzen dantzara, baina horregatik ez arduratzeko esan nahi diet. Bertan segituan egiten baitira lagunak eta familia bat bezala gara.

Oinkari dantza taldean mutil dezente biltzen zarete hala ere, ezta?
Bai, baina askotan kosta egiten da lehenengo pauso hori ematea. Niri hasieran bakarrik joate horrek kezkatzen ninduen, baina behin dantzan sartuta, segituan egiten dituzu lagun berriak. Orain, izena eman genuen 16 horietatik dantzan jarraitzen duen bakarra naiz, baina oso gustura sentitzen naiz.
Udan kanpora joatekoak al zarete?



Lander Mujika, Asteasun.

Bai, aurreko Frantziako jaialdi batera bidaiatzeko aukera izango dugu eta ea zer moduzko esperientzia izaten den. Normalean oso esperientzia positiboak izaten dira bidaia hauek eta baita bertakoekin konfiantza gehiago egiteko aukera politikak ere.

Herri bazkarirako jatekoa prestatzea ego-kitu izan zaizue. Aurten ere saltsan ibiliko al zarete?

Ez, hori urtero koadrilla ezberdinari antolatzea egokitzen zaio. Aurreko urtean guri tokatu zitzaigun, baina aurreko beste koadrilla bati pasa diogu lekukoa. Aurten parranda gehiago egiteko aukera izango dugu.

Nola egiten duzue koadrillen arteko aukeraketa hori?

Koadrilla guztietako ordezkariekin bilera izan dugu eta bertan erabaki da urteko urte zein koadrilla izango den antolatzailea. Bilkura horren arabera zehaztu da

urtero nor izango den eta dagoeneko, hurrengo urteetan antolatzaile lanetan ibiliko direnak izendatuta daude.

Aurtengo egitaraua ikusita, zein hitzordutara ez duzu hutsik egingo?

Gehienbat lehen eguneko parrandara. Lehenengo egunean herriko guztiak elkartuko gara eta oso polita izaten da. Larunbateko koadrillen eguna ere indartsua izango da, gauean kontzertuak daude gainera! Larunbata izanik normalean kanpoko jende gehiago gerturatzen da eta lehenengo egunarekin alderatuz, giro ezberdina egoten da. Lehenengo eguneko herrikoen arteko parranda izaten baita.

Zein da zuen ustez Asteasuko San Pedro-etako berezitasuna?

Nire ustez denok herriko festak ezberdin ikusten ditugu eta alde horretatik xarma berezia dute. Herriko adin ezberdinetako

ko gazteak batera ibiltzen baikara eta oso giro herrikoia sortzen da. Momentu horiek, herriko beste gazteekin konfiantza egiteko egokiak dira. Asteasu bezalako herri txiki batean ez baitaustazu adinako horrenbeste lagun eta adin ezberdinetako jendea ezagutzeko eta lagun tarte zabaltzeko aukera ematen dizu.

Eguna ala gaua nahiago?

Biak aukeratuko nituzke, egunean zehar ere ekitaldi politikak izaten baitira, adibidez San Pedro egunean egiten den Soka-dantza, festetako egun berezia da hau eta oso gustura egiten dugu. Gauaren aldetik ere, gauak bere xarma badu. Baina agian eguna aukeratuko nuke; uda denez eta eguraldi onak pozten gaituenek, beste umore batez jarri eta ekitaldietan sortzen den giroa oso atsegina iruditzen baitzait.

Festetan jateko? Eta edateko?

Koadrilla egunean bietatik egiten dugu. Azkenean denetarako aukera egoten baita, bai bazkariak eta koadrillakoekin otorduak egiteko eta baita gauean zertxobait edateko ere.

Parrandan dantzarik bai?

Parrandan dantza egiten dugu bai, eta festak herrian izanda, gutxiago lotsatzen gara.

Zein motatako musika gustatzen zaizu gehien?

Azkenean lagun tartean zaudenean eta giroa sortzen denean berdin du ze motatako musika dagoen. Txorakeriak egiten eta lagunekin ondo pasatzean dago gaia.

Mezuren bat herritarrei?

Festak disfrutatzeke direla eta udara ondo hasteko aukera ere bai. Gainera orain eskola eta batzuk lana ere amaitzen dutela jakinik, udara ondo hasteko eta des-konekatzeko aukera paregabea da.

Eta herritik kanpoei?

Larunbatean etortzeko eta lehen eguna herrikoei uzteko.

ERAKUNTZAK - ASFALTOAK
BIXENTE OTEGI LIZASO, S.L.
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu
Elizmendi, 44
20159 Asteasu (Gipuzkoa)
Tel./Faxa: 943 690 178
bixenteotegi@bixenteotegi.com

OGI ZURI  **OGI GOXO**
OKINDEGIA, S.L.
Lizarrate-eta, 32. Elizmendi auzoa. ASTEASU ☎ 943 691 896
OGI-ZURI
Bulandegi bidea 1-3. ZIZURKIL ☎ 943 691 000
OGI-GOXO
Kale Nagusia, 26. AMASA-VILLABONA ☎ 943 693 294
FESTAK ONDO IGARO!
Ogi herezi eta artesanak - Etxerainoko zerbitzua

Suziria botatzea euren esku dago

ASTEASUKO GURE ESKU DAGO EKIMENeko KIDEEK BOTAKO DUTE AURTENGO SAN PEDRO JAIEI HASIERA EMANGO DIEN SUZIRIA. GUSTURA JASO DUTE PROPOSAMENA TALDEKIDEEK.

Gure Esku Dago ekimeneko kideek, Asteasun egindako lanarengatik eta urtean zehar herrian sortutako mugimenduarengatik jaso dute Udal ordezkarien ahotik, suziria botatzeko deia eta "egindako lanaren errekonozimendu gisa", pozik jaso dute gonbidapena. Ekainaren 28an, udaletxeko balkoian elkartuko dira eta herriari kolorea eta bizitasuna eman nahian, ideia ezberdinak darabilzte buruan txupinazoari begira. Argi dutena, pregoia herritarrei zuzenduko dietela. "Gurea ez da maiztasun jakin batekin biltzen den taldea. Ekintza zehatzak antolatzeko bildu ohi gara eta herritarrei laguntza eskatzen diegu ekintza horiek burutzeko. Herritik sortutako mugimendua da Gure Esku Dago eta txupinazoaren egunean, udaletxeko balkoian ahalik eta herritar gehien biltzen ahaleginduko gara", azaldu dute. Izan ere, argazkian ageri direnak ordezkari bat besterik ez dirrela diote, herritar gehiagok hartzen duela parte eurekin batera eta eskerrak eman nahi dizkiete haiei guztiei.

ILUSIOZ

Asteasun herritar askok hartu du parte Gure Esku Dago ekimenak urtean zehar antolatutako ekintzatan eta 400dik gora herritarrek eman zuen bozka erabakitzekeo eskubidearen inguruko galdeketa. Gainera, martxoaren 19an lan egiteko bolondres asko batu zuten eta herritarren erantzuna bezala, jasotako



Xanti Azurmendi, Iban Ezkerra, Itziar Zeberio, Ainhoa Bakero, Claudia Ponce, Joxe Anjel Sarasola eta Larraitz Alkorta, Gure Esku Dago ekimeneko kideetako batzuk.

emaitza oso ona izan zela adierazi dute. Gure Esku Dago ekimenak, etorkizunera begira, oraindik lan asko egiteke duela iruditzen zaie. Hala ere, euren ustez, "herritarrongari baino gehiago, politikariengan edo gizartearengan dago orain giltza". Ekintza jakinetarako jendea erraz bildu arren, egunerokotasuneko txinparta bizirik mantentzea kosta egiten da, "ekintza batetik bestera denbora tarte handia igarotzen da eta jendearen ilusioa hoztu egiten da denbora tarte horretan. Eta jakina, hori ez da komeni", iritzi diote. Baina ilusioz egiten dute

lan eta modu berean jarraitu nahi dute aurrera, herritarrekin batera.

GIRO POLITA


Sanpedro jaiak iristeko gogoz daude guztiak ere, "giro polita sortzen baita herrian". Uztailaren 1eko Sutagarren kontzertuan, bereziki, jende asko espero dute aurtengatik, baina Iban Ezkerrak, esaterako, lehen eguna du gogokoena, "herritarrona delako". Larraitz Alkortak, besteak beste, San Pedro eguneko musikarien kalejirarako ilusio berezia du. "Garai batean trikitixa edota pan-

deroa jotzen genuen 18 urtetik gorako asteasuarrak elkartu eta kalejirako gainerako musikariekin batera, lagunartean hartuko dugu parte. Poza ematen dit begira egon beharrean parte hartzeak", adierazi du. Ainhoa Bakero emakumeen pala txapelketako jokalarietako bat da eta Itziar Zeberio adierazi duenez, "iazko emakumeen lehen pala txapelketako finalean oso giro polita sortu zen pilotalekuan. Aurtengatik bigarrena izango da. Gainerakoan, nabarmentzekoa da koadrillen bazkariaren ondorengo kalejiran sortzen den giroa ere".



PIEZEN MEKANIZAKETA ETA MUNTAKETA

TXORTU Lantegiak, S. Koop.



Asteasuko industrialdea, A. gunea, 9. Zbk.
Telefona: 943 691 779 - Faxe: 943 693 387
20159 ASTEASU (Gipuzkoa)

Gora Sanpedroak!



Ormazabal
GARRAIOAK

Iker Ormazabal S.L.

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Tel. 680 365 181
Zilar kalea, 2 - ASTEASU



Gora Sanpedroak!
Ondo pasa jaietan!

ADOS MUNTAIK, S.L.
Asteasuko Industrialdea
A. gunea-15, 20159 Asteasu
Tel.: 943 694 384
Faxe: 943 694 375
info@adosmuntaiak.com
www.adosmuntaiak.com

Izeta II ikusteko gonbidapena luzatu du

ASTEASUARRAK JAIETAKO HERRI KIROL HITZORDUAN PARTE HARTZE ZUZENA IZAN DU. IZETA II PLAZATIK ALDENDUKO DELA ETA, HURA SAN PEDRO JAIETAN IKUSTEKO AUKERA PAREGABEA DELA DERITZO.

Herri kirol munduan oso ezagun zara. Harria jasotzen eman zenituen lehen pausoak. Kontaiguzu...

90eko hamarkadan, 26-27 urterekin harri-jasotze munduan hasi nintzen eta hamar urte egin nituen. Nire hasierako jorra Amezketa 200 kiloko harri historikoa jasotzea izan zen. Gero hainbat txapelketatan ere ibili naiz eta hori izan da nire hamar urteko bizimodua. Harria jasotzeari utzi nionean, hamar urteren ondoren, aurkezle eta esatari moduan ere ibili naiz. Ni harri-jasotzaile moduan ibiltzen nintzenean aurkezleen falta sumatzen bainuen eta neroni hasi nintzen erakustaldi zein txapelketetan esatari moduan laguntzen.

Gaur egun, Asteasun jokatzaren diren Euskal Herriko aizkora txapelketetan, bertako kanporaketetan, oraindik jokatzen diren harri handien txapelketetan eta Luis Mari Bengoak antolatzen dituen torneoetan ere ibiltzen naiz. Azkenengo urteetan gainera, Asteasun segalarien Euskal Herriko Txapelketak eta Gipuzkoakoak ere jokatzen dira, baina denean laguntzaile moduan aritzen naiz. Antolakuntzan normalean beti federazioa izaten da eta guk lekua jartzen edota udaletxearen tarteko egiten laguntzen dugu. Ez dut dena nik antolatzen, nire esku dagoenean laguntzen dut. Asteasu beti egon da herri kirol munduarekin lotuta, segalariak eta harri-jasotzaileak izaten dira bertan eta orain herriko aizkolari bat ere badugu. Festetan ere bi aizkolariaren artean eta harri-jasotzaileen artean lehia politak izaten dira eta horiek antolatzen ere laguntzen dugu, baina hemen bakarrik; ez Euskal Herriko leku ezberdinetan.

Saioak antolatzen eta esatari lanak egiten aritzen zara orain. Nola ikusten duzu barru-barrutik ezagutzen duzun herri kirolen mundua? Mundu globalizatuan, aurkitu al du bere tokia?

Orain oso harrigarria da 2.000 lagun apustu edo txapelketa bat ikusten egotea. Gaur egun gutxi gora-behera apustu normaletan 500 bat ikusle izaten dira eta apustu oso ona denean 1.000-1.500 ikusle egotea ikaragarria da. Beraz bai, mundu hau asko aldatu da. Horrek txapelketetan aldaketa ekarri du, orain jendea beste modu batera prestatuta etortzen baita. Garai batean aizkolari edo harri-jasotzaile bakoitzak bere taldea izaten zuen eta orain baino prestatuagoak egoten ziren. Orain, ordea, bakarka ibiltzen dira. Egia da, harri-jasotzaile eskolak egiten hasi direla mundu hau pixka bat suspertzeko asmotan. Bata Orion Ostolazak ireki duena eta bestea Izeta II.ak Zarautzen egin duena. Modu horretan gauzak pixkanaka aldatzen doaz, baina oso zaila da garai batean zuen boma hori berriz ere lortzea. Hala ere herri kirolek plazetan bere lekua daukatela



Joxe Angel Sarasola herri kirolean aritua eta aditua da. Aski ezaguna eskualdean eta Euskal Herrian.

esango nuke eta udaletxeek ere errespetu handia ematen diote.

Berriki Iruntxiberriri Andoainen omenaldia egin diote. Zein paper jokatu du Iruntxiberrik herri kirolen munduan?

Bere gairaian Iruntxiberriri bezalakoek herri kirolen mundua aldatu zutela esan beharra dago. Garai batean aizkolari zein harri-jasotzeileei dozena bat arrautza eta kilo bat txuleta egunero jan behar zirela esaten baitzieten. Korrika munduan elitean ibili ziren hauek elikagaien ikuspuntu hori hobetu zuten eta pixkanaka herri kirol mundua elikadura aldeetik aldatzen hasi ziren. Baita beroketak eta luzaketa ariketak egiten ere; lehen ez baitzen horrelako ezer egiten. Egia da horregatik errekonozimendua eman behar zaiela historian lan handiak egin dituztenei, eta poza ematen du, herri askotan nahiko ahaztuta egon baitira. Andoain beti izan da herri kirolen alde egon den herria, baina Iruntxiberriri egin dioten omenaldia detaile handia izan dela esango nuke.

Herri kirol saioak antolatzerakoan, kontuan hartzen al duzue genero ikuspegia? Hazten ari al da emakumeen presentzia?

Bai momentu honetan neska batzuk animatzen ari dira eta saiatzen ari gara emakume gehiago animatzen. Lehen segan emakumeen txapelketak egiten ziren, baina orain ez daude hori aurrera eramateko segalari nahiko. Aizkorako txapelketa ere Euskal Herri mailan egiteko aukera dago, baina hala ere soka-tirari, harria jasotzen eta kirol gehienetan emakumeak beti eduki du bere lekua. Inoiz ez da oztopo izan emakumea izatearena. Askotan gertatzen baita emakumeek beraiek beren burua herri kirolean ez ikustea, ez baita erraza; oso kirol gogorak dira eta emakumeen ikuspuntutik zailtasunak dituzte. Baina nik uste

badaudela arlo horietan ondo ibiliko liratekeen emakumeak eta gure lana, dudarik gabe, horretara animatzea da. Erakustaldi mistoak egin izan dira, baina polita litzateke emakumeak bere txapelketak egiteko ohitura hartzea.

Uda badator, eta haiekin batera baita herrietako festak ere. Herri kirol saioek nolako presentzia izaten dute horrelakoetan?

Herri kirolek, herriko festetan ematen zaien protagonismoagatik jarraitzen dutela esango nuke. Asteasuko festetan adibidez, herrikoen arteko lehia egiten da eta askotan horrelako erakustaldiak hasten da askoren afizioa, ondoren kirol honekin jarraitzeko bidea hartuz. Orain dabilzan aizkolari asko herriko festetan hasi ziren, beraz, erakustaldi hauek positiboak direla esango nuke.

Jendeak lehen maila horretara pasatzeko intentzioa duela esango al zenuke?

Joseba Otaegi adibidez, festetan hasi zen aizkora munduan, eta beste herri kirol zale asko ere bai. Ni ere, herriko festetan harria jasotzen hasi eta hortik animatu nintzen.

Asteasuko festak gainean dira. Nola biziko dituzu aurtengo Sanpedroak?

Nik nahiko normal, San Pedro jaietan lehen mailako harri-jasotzaile eta aizkolariak etortzen dira, Euskal Herriko finalean sei hoberenetan jokatutako bi aizkolari eta harria jasotzen harri txikitari txapelkunak diren Aimar Irigoien eta Izeta II.a izango dira. Izeta II.ak aurten 50 urte bete ditu eta harri-jasotze mundua utzi behar duela eta, uste dut merezi duela urte askotan hainbat txapelketa eta erakustaldi egindako gizona bertan izatea. Baina oso pozik, familiakoek biltzeko ohitura dugu eta San Pedro jaietako egunen batean Asteasun eta inguruko herrietan esatari lanak egin behar baditut ere, gustura ibiltzen naiz.

Zein ekitalditara ez duzu hutsik egingo?

Batik bat herri kirolek, baina bertolariak ere gustura entzuten ditut. Nahiz eta bereziki zalea ez naizen, herrian, noizean behin, gustura entzuten ditut eta, baita trikitalariak ere.

Zer esango zenieke oraingo gazteei herri kirolek animatzeko?

Lehenik eta behin, herri kirolek afizioa beharrezkoa dela eta bigarrenik, ni mugitzen naizen mundu honetan oso jende jatorra dagoela, beti laguntzeko prest dagoena. Egia da behin lehen mailara igota bakoitzak berea gehiago begiratzen duela, baina bestela beti bilatuko dutela laguntzeko prest dagoen jendea eta nik giro onean ibiltzera gonbidatuko nituzke. Egia da, futboleko edo pilotan bezala dirua irabazteko bada gerturatzen diren intentzioa, kirol honetan ez dutela hori lortuko, baina giro ederrean eta afizio sanoarekin disfrutatzen bada, herri kirolen mundua ezagutzera gonbidatzen ditut.

Gainera esan beharra dago, kirol hauetan ez direla astakeriak egiten eta hortxe daukagu 50 urterekin oraindik harria jasotzen jarraitzen duen Izeta. Baina bai, nik poza hartuko nuke gazteak herri kirol mundura gerturatzen direla ikusiko banu.



AMC
MECANOCAUCHO

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu!

Industrialdea Parc. 35 A
E-20.159 ASTEASU - Gipuzkoa
Tel.: 943 696 102 - Faxes: 943 696 219

Raketistak frontoian

RAKETISTEN JARDUNA BERTATIK BERTARA IKUSTEKO AUKERA IZANGO DA USARRABI PILOTALEKUAN, UZTAILAREN 2AN.



Raketistak Usarrabi pilotalekuan arituko dira.

Estatuko lehen emakume kirolari profesionalak izan ziren raketistak. 1917an hasi eta 1980ko hamarkadara arte pilotalekuz pilotaleku ibili ziren arren, egun oso gutxitan aipatzen da emakume haiek egin zuten lana. Aurtengo jaietan, garai batean egiten zuten bezala, kiniela modalitatean lehiatuko dira lehendabizi. Apusturako bidea ematen zuen kinielak. Sei pilotari kantxarutzen ziren, bakoitza zenbaki batekin. Zenbakiak pilotariaren kalitatea zehazten zuen; zenbat eta altuagoa, orduan eta hobea. Buruz burukoak izaten ziren partidak. Partida bakoitzeko irabazleak, hurrengo aurkariari egin behar zion aurre. Bost partida irabaztea lortzen zuena lehendabizikoa izaten zen kinielako garaile.

IKUSKIZUNA ZIURTATUTA DAGO

Uztailaren 2ko saioan, Larrarte, Munteta, Irazustabarrena, Araiztegi, Saez eta Martin lehiatuko dira kiniela modalitatean. Maila bikainekoak guztiak ere.

MIREN UZKUDUN, RAKETISTA

Urrutira joan gabe, Miren Uzkudun asteasuarra raketista ibilitakoa da. 18 urterekin egin zuen debuta, 1940 urtean, Madrilgo Iberia pilotalekuan. Donostia, Bartzelona, Tenerife, Mexiko, Kuba, eta berriz ere Bartzelonan aritu zen, harik eta 1960an Madrilen azken partida jokatu zuen arte. Ibilbide oparoa egin zuen. Jaietan, raketa eta pilota hotsak entzungo dira Usarrabin, Mirenen bealunaldiko raketistek egindako bidea itzaletik ateratzen has dadin.

Gaueko bus zerbitzua

UZTAILAREN 1EKO GAUEAN ORDURO BUS ZERBITZUA TOLOSA-ASTEASU JOAN-ETORRIAN.

Irteerak Tolosatik

Tolosa	Anoeta	Irura	Villabona	Zizurkil	Asteasu
23:00	23:10	23:12	23:20	23:25	23:30
00:00	00:10	00:12	00:20	00:25	00:30
01:00	01:10	01:12	01:20	01:25	01:30
02:00	02:10	02:12	02:20	02:25	02:30

Irteerak Asteasutik

Asteasu	Zizurkil	Villabona	Irura	Anoeta	Tolosa
00:30	00:35	00:40	00:48	00:50	01:00
01:30	01:35	01:40	01:48	01:50	02:00
02:30	02:35	02:40	02:48	02:50	03:00
04:00	04:05	04:10	04:18	04:20	04:30
05:00	05:05	05:10	05:18	05:20	05:30
06:00	06:05	06:10	06:18	06:20	06:30
07:00	07:05	07:10	07:18	07:20	07:30
08:00	08:05	08:10	08:18	08:20	08:30

Uztailaren 1ean, San Pedro festetako larunbatean, gaueko autobus zerbitzu berezia jarriko dute Tolosaldeetik eta Asteasurako joan-etorriak ibilgailua hartu gabe egin ahal izateko. Gaueko 23:00etan jarriko dute martxan Asteasura hurbiltzeko zerbitzu berezia eta Villabona, Zizurkil edota Tolosaldera itzultzeko bus zerbitzua igande goiza arte indarrean egongo da. Bus zerbitzuen maiztasuna ordurokoa izango da.

SUTAGAR TALDEAREN KONTZERTUA LARUNBAT GAUEAN

Beraz, Sutagar taldearen kontzertua ikustera joateko plan onena bus zerbitzuaz baliatzea izango da. Jaiaz gozatzeko aukera ederra da, autoa etxean utzita.



Sutagar taldeko kideak, berriki eskaini duten zuzeneko emanaldian.

LUR-LAN
 Ekomuseoa
 Boulevard 7
 20003 Donostia
 Tel. 943 42 86 48

Bistrot-Denda
 Gorriti plaza, 2
 atzealdea (Plaza Berria)
 20400 Tolosa
 Tel. 943 24 33 39
 lurlan-bistrot@lurlan.org

www.lurlan.org
lurlan@lurlan.org

Ondo pasa festetan!

LUR
 Denak pol. zb. 207 ANDOAIN
 Tel.: 943 592 851 - 605 763 940

FISIOTERAPIA
 PILATES ZENTROA

GORA SANJUANAK,
 GORA SANPEDROAK

bizar lgerategi
 lizarribar

asmek
 1986az geroztik

Industrialdea, B Gunea, 38 20159 Asteasu (Gipuzkoa)
 Tel. +34 943 692 230 Faxa: +34 943 690 899
asmek@asmek.es www.asmek.es

Patxine jatetxea
 Ondo pasa festetan!

Gure berezitasuna:
**EUSKAL SUKALDARITZA
 ETA ETXEKO POSTREAK**
 Errementari, 1 - ASTEASU
 Tel.: 943 69 10 25

ENVASADOS

skinter, s.

Industrialdea, 46-47 (B gunea). 212 p.k.
 20159 ASTEASU (Gipuzkoa)
 Tel. 943 69 01 99 - Faxa: 943 69 31 67
skinter@skinter.eus | www.skintersl.com

Ondo pasa Asteasuko jaietan

San Juan bezpera, San Pedro jaien atariko

SAN JUAN BEZPERA ETA SAN JUAN EGUNA JAIEN ATARIKO APROPOSAK BILAKATU DIRA. SAN PEDRO JAIK HAUREN EGUNAREKIN HASI ETA BOST EGUNEZ OSPAKIZUN UGARI IZANGO DA ASTEASUN.

Ekainak 23, ostirala

21:00 San Juan sua eta dantza.

Ekainak 24, larunbata

18:00 Dantza emanaldia: Asteasu, Larrraul eta Adunako dantza eskolak. Oinkari dantza taldea.

Ekainak 28, asteazkena

Haurren eguna

11:00 Haurren txupinazoa. Ondoren, haurren krosa eta marrazketa lehiaketa.

12:00-14:00 Haur parkea frontoian.

14:00 Umeen bazkaria.

15:00-17:00 Haur parkea.

17:30 Arkupeko pilota finala eta gizonen zokoaren pala finala.

19:30 Txupinazoa Asteasuko Gure Esku Dagoren eskutik. Ondoren, kalejira: txistulariak, buruhandiak eta Zizurkilgo erraldoiak.

22:30 Bertso saioa plazan: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio eta Haritz Mujika. Gai-jar-tzailea: Amaia Agirre (Bertso eskolako ikasleen laguntzarekin).

Ekainak 29, osteguna

San Pedro eguna

10:00 Diana.

11:00 Meza nagusia Elizmendir: Soka-dantza, hamaiketako eta pilota eskolako txapelketako finalak: Unax Maioz-Ioritz Elola. Iker Izagirre-Aimar Seguroa.



San Pedro egunean meza nagusia egingo dute Elizmendir. Meza ostean, ohikoa den moduan, Soka-dantza, hamaiketako eta pilota partidak. Argazkian, Udal ordezkariak eta txistulariak lazko San Pedro egunean.

18:00 Kalejira herriko musikari, buruhandi eta erraldoiekin.

21:45 Mus eta Txintxon txapelketaren izen-ematea.

22:30 Txapelketaren hasiera.

22:30 Joxe Mendizabalen erromeria.

Ekainak 30, ostirala

Jubilatuaren eguna

11:00 Meza. Ondoren hamaiketako Aitzondo elkartean.

13:00 Herri kirolak.

Harri-jasotzaileak: Aimar Irigoien eta Joxe Ramon Iruretagoiena (Izeta II).

Aizkolariak: Ugaitz Mugerza eta Joseba Otaegi.

14:30 Jubilatuen bazkaria frontoian. Telleria eta Lizaso bertsolariak, Izer eta Alabier trikitilariak.

17:30 Trikitixa eta pandero eskolan musika emanaldia.

19:15 Frontenis txapelketaren finala. Ondoren, Klean txaranga.

21:30 Herri afaria.

23:30-01:00 Klean txaranga.

00:30 Nemux diskofesta.

Uztailak 1, larunbata

Koadrillen eguna

Koadrillen triki-poteoa.

14:00 Ikurriñaren ekitaldia.

14:30 Koadrillen arteko bazkaria.

16:30 Zezen txiki eta poniak.

18:30 Sakatu Elektrotxaranga.

23:30 Rock kontzertuak: Trinifox, Sutar eta Katez.

Uztailak 2, igandea

10:45 Pilota txapelketako finalak. Esku pilota alebinak: Alex Zeberio-Beñat Fernandez. Emakumeen pala. Emakume raketistak. Kiniela: Larrarte-Muneta-Irazustabarrena-Araiztegi-Saez-Martin. Partida: Irazustabarrena-Araiztegi vs Muneta-Saez.

11:00 Patata tortilla txapelketa.

13:00 Sagardo dastaketa: Sarasola, Etxeberria, Zabala, Aburuza eta Urdaira.

18:00 Herriko taldeen arteko herri kirolak. Ondoren dantzaldia plazan Errebal taldearen eskutik.

21:00 Sorginaren igoera.

Jaien jarraipena: www.aiurri.eus
Argazkiak, bideoak, egitaraua egunez egun.

ONDO PASA JAIETAN

Goine esneki naturalak

GURE PRODUKTUAK

- Gaxure "katzur krema" BERRIA
- Mamia
- Gaztazarra
- Gazta biguna
- Gazta freskoa
- Gazta ruloa
- Ondutako Idiazabalgo gazta ketua
- Gazta freskoa
- Jogurta basafritu eta marrubiekin
- Jogurt naturala eta azukreztatua

SASKAGOIN KOOPERATIBA ELKARTE TXIKIA - Gorua
Goiena baserria, z/g - 20159 ASTEASU
Tel.: 647 697 535 / 615 296 613 saskagoin@gmail.com

Okindegia - Kafetegia - Gozotegia

KABELA

ONDO PASA SANPEDROTAN!

Nagusia, 3 - Tel.: 943 696 405 - 20159 ASTEASU

Iturri-Ondo

Jatetxea

Jai zoriontsuak igaro

Tel.: 943 691 331
20159 ASTEASU

JOXEAN HARATEGIA

Baserriko haragia
Urdaitegi berezia

Bulandegi
bidea,1. Zizurkil
943 696 242

Ondo pasa festetan!

RANSPORTES
akunza

Eguneroko zerbitzua Bizkaira, Iruñeara eta Gasteizera

609 434 910 - 609 401 884 - Tel.: 943 693 212 - Faxa: 943 694 924
www.transporteslakunza.com - info@transporteslakunza.com
A Industrigunea - 16. pabilioia, 20159 ASTEASU
52 P.K., 20150 AMASA-VILLABONA

BETERRI-BURUNTZAKO UDALAK

GIDABAIMENA MERKEAGO LOR DEZAKEZU!!

BURUNTZALDEAN NON:

Andoain		
BENGOETXEA	Juan Bautista Erro 9	943 59 44 06
MENDI	Agustin de Leitzza 11	943 30 06 04
Astigarraga		
OTAMENDI	Zubiondo 14 - LOIOLA	943 45 11 07
Hernani		
HERNANI	Latsunbe 3	943 55 05 34
	Urbietta 7	943 55 34 16
LAGUNAK	Karobieta 1	943 33 14 19
OTAMENDI	Izpizua 1	943 55 35 45
Lasarte-Oria		
MUGICA	Ganbo 1	943 36 22 75
Urnieta		
SOLOZABAL	Idiazabal 24-1C	943 33 41 69
Usurbil		
SOLOZABAL	Irazu 2	943 37 69 36

MERKEAGO ATERATZEA NAHI?

AZKEN TEKNOLOGIAN MURGILDUTA IRUDIEKIN JOLASEAN

EMAN BIDEA

HAUXE DUZU GIDABAIMENA ATERATZEKO MODURIK ERAKARGARRIENA!!!

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udaletako Euskarako Batzordeak

Gidabaimena EUSKARAZ

ETA HORI GUTXI BALITZ...

ZOKKETAN PARTE HARTZEKO AUKERA 9 SARI BURUNTZALDEAN: TEORIKOAREN BALIOA (400 € GEHIEZ)

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- PARTE-HARTZAILE GUZTIAK BURUNTZALDEKO HERRIREN BATEAN ERROLDATUTA EGOTEA.
- GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEA
2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gainditu dutenek hartuko dute parte zokketan. (Esku-orri honetan agertzen den edozein autoeskolatan).
- PARTE HARTZEKO HURRENGO DATUAK BETE ETA AUTOESKOLAN BERTAN UZTEA.

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

HERRIA

ZURE TELEFONOA

AUTOESKOLA



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Zorionak Ascension Mendietari

2013an Argentinara egin genuen bidaian ezagutu genuen elkar. Hogei-uren bat ginen Madrilgo aireportuan elkartu eta Argentinarako bidea hartu genuenok. Lehen aldia zen eta, ohikoa denez, agurrak eta besarkadak izan genituen ezagupen bideak. Zu zinen, Ascension, guztion artean adinekoa. Emakume fina, dotorea, argia. Ondotan zenuen zure iloba. Denok gindozan Argentinara Francoren diktadurapean jasandako atxiloteta, desagerteta eta torturak salatzea, hemen Espainian ez baitzegoen kereilak jartzeko aukerarik. PPreu Gobernuak ez zuen eta ez du borondaterik 1936ko Gerran gertatutako krudelkeriak (desagertuak, hilak, torturatuak, espetxeratuak) ikeritu eta erantzuleak epaitzeko. Hori izan zen Argentinako Gortean kereila jartzeko arrazoia. Gu joan aurretik baziren zenbait gerra denboran Argentinara ihes egin eta Justizia Unibertsalaren izenean kereila ireki zutenak. Eta, guk, bide horri ekin genion hemengo Justizian inongo borondaterik ez guelakatu ikusten.

Argentinan ez genituen egun asko egin, baina ongi aprobetxatuak izan ziren. Egunduek aukera eman zidaten zu hurbiletik ezagutzeko. Argentinan sortu zen Plataformak handik eta hemendik ibili gintuzten eta batik bat erakunde publikoetan, hala nola, Kongresuan, Senatuan... Zu zinen atentzioa ematen zuena eta berehala zetozen galdarak. Jakina, zu zure aitaren bila joan zinen. Bazenekiten Guadalajarako hilerrian zegoela lurperatua baina, ez zuten aukerarik izan hilobiratze duin bat eskaintzeko. Gerra garaian, hainbat lekutan bezala, eta hainbatekin gertatu bezala, zure aitaren gorpua bazter batean jaurti zuten. Eta aukera izan zenuen, joan ginen guztiok bezala, Serbini epailearen aurrean deklaratzeko. Gogoan dut, zuk, ere, eta guztiok bezala, halako lasaitasun bat hartu zenuela deklaratu ondoren, ordura arte ez baikenuen aukerarik izan modu lasaian egiteko. Eta, gogoan dut epaitegikoa bukatu eta elkar besarkatu ginela eta, pozaren pozez, hauxe esan zenidala: Orain bakean hil naiteke; eta aurpegiaren islatzen zen zure barneko bakea eta lasaitasuna.

Urteak joan, urteak etorri, zure abokatuak lanean aritu dira zure justiziazko eskaera burutzen, eta egun hauek jakin dugu Serbini epailearen aginduz eta Guadalajarako epailearen aginduz hilobitik gorpua ateratzen saiatu direla, eta bigarren ahaleginean zure aitarena aurkitzea lortu dutela. Argentinan deklaratu zenuen momentu hura momentu pozgarria izan bazen, oraingoa hau ez da seguruenik gutxiago izango eta oraingoan ere esaldi mardula jaurti duzu: "Aitaren hilobian lurperatzea nahi dut". Alegia, zure gorpua beraren ondoan lurperatua izan dadila. Zorionak Ascension. Laurogei urte luza-

Argentinan deklaratu zenuen momentu hura momentu pozgarria izan bazen, oraingoa hau ez da seguruenik gutxiago izango

Zorionak Ascension. Laurogei urte luzaro igaro dira gerra krudel hartatik, baina borrokak merezi izan du

ro igaro dira gerra krudel hartatik, baina borrokak merezi izan du eta Frankismoaren aurkako inpunitatearen aurkako ikur bilakatu zara. Zorionak Ascension, zuri eta zure familiarekoei!!

LORPEN HONEN ONDORENGO HAUSNARKETA

2013tik hona, zorionez, gauzak aldatuz doaz. Orduan soilik Argentinako bidea ikusten zena, bidea zabalduz joan da, eta hemengo epaitegiak ere hasi dira kereilak jasotzen. Bi bideak dira egokiak, baina esperientziak erakutsi du garrantzitsua dela hemengo epaitegiak ere erabiltzea. Badirudi, gainera, zenbait erakundeetako zerbitzu juridikoez dutela bidezko ikusten Argentinarako bidea. Hala nola, Bilboko eta Donostiako Udalek. Baina horrek ez du esanahi hemengo epaitegiak bidea itxita dagoenik. Eta horretan ari dira zenbait Udala eta Aldundiak. Gasteizkoak aurkeztu zuen berea 1976ko sarraskiak salatu eta oraindik bizi diren zenbait erantzule epaituak izan daitezten. Oker ez banago, Gasteizko Udala Aldundia izan ziren aurkezleak baina, epaitegiek atzera bota zuen. Helegitea jarri dute eta erabakiaren zain daude. Udalen aitzindari eta eredu Iruñeko Udala dugu, Asiron alkatea buru. Kereilatu aurretik Udala bulegoa ireki zuen, herriarrek ahal zuten testigantza emateko. Lan asko ondoren, testigantza asko jaso zituzten eta horietako batzuk kereila jarri zuten Iruñeko epaitegian.

Eta, azken berrien arabera, badirudi aurrera doala. Entzuna dudanez, Donostiako Udala iturri, Euskal Gobernuak, Oroimen Institutuak eta Udalek Aranzadi Elkarteari agindu diotela 1936-1945 bitarteko garai hura aztertze. Horretarako badirudi bulegoa irekiko dutela testigantzak jasotzeko. Dirudenez, herrietara zabaldu nahi dute nahiz eta herri batzuk lan hori egina duten. Jakina, nik ongi deritot 1936-45 bitartea aztertzea baina horrek jarraipen bat eskatzen du, diktadurako biktimak eta gaur arteainokoak asko eta asko direlako. Horiek ere memoria, justizia, erreportazioa eta errekonozimendua behar dute.

Ez al gara hankamotz geratuko? Lotsagarria litzateke.

Egape ikastolak 50 urte

Aitziber Salinas Urnieta

Izango dira 25 urte ikastolatik atera nintzela. Ordenagailuetan Logo programa erabiltzen genuen etorkizunerako baliagarri izango zelakoan, zapata botatzen zigun dantza irakasleak arin-arinean trebe aritzen ez ginenean, eta Mari Jose andereñoak Hiru Txerrikumeen ipuina kaseteen grabatzen zigun euskara indartzeko laguntza behar genuenoi. Izugarri aldatu dira gauzak, onerako gehienak. Eta guri, handik pasa gineno, bihotzean geratu zaigu Egape: Elizondoko geletako usaina, milaka bizipen eta sentimendu asko.

Baina ikastolak bazuen, badi berezitasun bat, hain justu, ezinezko zirudiena lortu zuen: euskaraz matematika, fisika, musika, filosofia eta abarrak irakastea, eta ikas genezan lortzea! Eta garrantzitsuagoa dena; haurtzarora

euskaraz bizi genezan lortu zuten bost aitzindari ausartek, Sabina Arruarte, Maria Arizmendi, Xabier Larretxeak, Benantzio Laskibarrek eta Hiazinto Fernandorenak.

Erokeria zela pentsatuko zuten askok, etorkizunik izango ez zuen ekimena izango zela, gehienek, eta zaila izango zela, denek. Baina aurrera egin zuten ama hizkuntzan ikasteko aukera eskaintzeko urnietar gehienoi eta euskara ikastekoa beste zenbaiti.

Erabaki ausartek baldintzatu zuten etorkizuna. Zalantza josita bada ere, norberak sinisten duenaren alde egite horrek. Eta hala egin zuten, Sabina Arruarte izan zuen kezka horri erantzun eta bidelagun izan zituen beste lau sortzaileek, ausardiaz proiektuan parte hartzea erabaki zuten gurasoek eta lehen irakasleek. Asko zor diegu.

Orain, Urnietan 50 belau-naldi gara esker onez beterik, esfortzu handiz eraikitako

hori bihotzean errotuta dugu-lako. Ikastolak 50 urte bete dituen honetan, gainera, bizirik jarraitzen duen etorkizuneko proiektua ikus dezakegu, aurrera egiteko eguneroko borrokan.

Urnietak ikastola aitzindaria du, herrian txertatuta, teknologia berriak gelan barneratuta dituen, puntako dantza taldea duena eta etorkizuneko pertsona osoak, zentzu guztietan gaituak, aniztasunean heziak.

Horregatik begiratzen diogu harro Egaperi eta garai aproposa da gogoratzeke kasualitateak ez direla existitzen eta esfortzu eta lan tinakoaren fruitu dela egun guztian eskura dagoen ikastola. Ez dezagan ahaztu, egungo erabakiek ere baldintzatuko baitute etorkizuna: egun egiten ditugunek eta bazterrean egin gabe uzten ditugunek irudikatuko dute hurrengo urteotako gizartea. Ekin diezaiozun, bada!

ITURZAETA PALA MEMORIALA SORABILLAN



Loidi anaia eta Irati-Itsasne izan dira aurtengo Iturzaeta Herrikoiairen finaletako irabazleak. Asteburuan, pala motzeko txapelketa jokatu da Arraten. Ostiral eta larunbatean final laurdenak jokatu dira eta igandean finalerdiak. Euskadiko afizionatu mailako pilotari onenek jokatu dute.

IKASTURTE AMAIERAKO ESKUBALOI OSPAKIZUNA URNIETAN



200 lagunek agur esan zioten denboraldiari, Oianume jatetxean. Klubean ibilbide osoa egin dutenei omenaldia egin ohi diete ospakizun horretan. Aurtengoan Garazi Ramos, Irune Alcaide, Ianire Senperena, Leire Moreiro eta Ioritz Lizetaga saritu dituzte. Kadete mailako Idoia Moreiro ere gogoan hartu zuten, egun batzuk lehenago Federazioaren eskutik bere mailako goletzaila onenari dagokion saria jaso baitzuen.



KIROL ALBISTEAK

“Dena izango da berria niretzat Zipren”

Nestor Orozko urnietarrak (33 urte) urtebeteko kontratua sinatu du Zipreko AEK Larnaka taldearekin. Prestatzaile fisiko jardunean arituko da, Imanol Idiakezen aginduetara. Lehen esperientzia izango du atzerrian, baina erakusleioa baliatu nahi luke, hasitako bideari jarraipena emateko: "Oinak lurrean edukita, beti ere".

Mugitu samarrak izan dira azken bi asteak...

Maiatzaren 29an Zipreko AEK Larnakarekin kontratua sinatu nuen. Gero futboleko ohikoak diren gorabehera batzuk gertatu ziren, eta ekainaren 8an jakin nuen ziurtasunez Ziprera joango nintzela. Gaur noa Poloniara, nire irakaskuntza laneko kontu guztiak lotuta. Taldeak dagoeneko aurre-denboraldia hasi du, ekainaren 29an hasten da lehiaketa guretzat, UEFA Europa League-eko lehen atarikoarekin. Poloniatik Ziprera joango naiz taldearekin.

Imanol Idiakez da AEK Larnako entrenatzailea. Bera han egotea erabakigarria izan da, zu ere bertara joateko.

Bai, noski. Aspalditik ezagutzen dut Imanol, futbolaren ikuspegi oso antzekoa dugu biok, eta bera AEKko entrenatzailea izatea erabakigarria izan da. Iaz ere aukera izan nuen Ziprera joateko, baina irakaskuntzan gorabehera batzuk izan nituen, eta ezin izan nuen joan. Orain beste aukera bat sortu da, eta irakaskuntzako gorabehera horiek konponduta, pausoa ematea erabaki dut. Profesionalki aukera ona da, irrikan nago hara joan, entrenatu eta ea ze bizipen dudak jakiteko.

Imanol Idiakezek eta zuk futbolaren antzeko ikuspegia duzula esan duzu. Zein ikuspegi da hori?

Futbolariak futbolaren inguruan entrenatu behar direla. Espezifikotasun handia dugu ardatz. Korrikalariak korrika egin behar dute, ba futbolariak futboleko aritu behar dira. Horrek ez du esan nahi saio fisikoak



Nestor Orozko urnietarra.

egiten ez direnik, korrika eta beste, baina guk futbolariak prestatzen ditugu.

AEK Larnaka, Zipre... jauzi kualitatibo handia da zuretzat arlo guztietan.

Dudarik ez. Hasteko, urte osorako noa etxetik urrun. Urnietaren batere antzik ez duen toki batera. AEK Larnaka Zipreko bosgarren taldea da, sei bat milioi euroko aurrekontua du, eta azken urteetan txapeldunordea izan da Apoel Nicosiaren ostean. UEFA Europa League-n multzokako ligaxka atarian geratu izan da. Lan ona egiten ari dira, Espainiako hainbat jokalaririk fitxatu dituzte... Oinarri sendoa dute, badakite zer nahi duten, eta hori seinale ona da.

Eta futboletik at, zer esaten dizu Larnakak? Tokiak, eguraldiak, lehen esperientzia atzerrian...

Dimentsioa ezberdina da. Nik orain arte 2.B Maila bakarrik ezagutu dut, Real Unionen. Nahiko liga profesionala: Alvaro Cervera eta Roberto Olabe izan ziren entrenatzaileak... Konfiantzarekin noa, badakit entrenatzaileak zer nahi duen. Ingelesa erabili beharko dut,

nahiz eta hamabi jokalarik gaztelera hitz egin.

Larnakan grekeraz idazten dute, eta horretara ere moldatu egin beharko naiz. Hortik aurrera, dudak jakintzarekin lan egingo dut.

Beldurren bat baduzu?

Pausoa ematerakoan ez. Ni prestatzaile fisikoa naiz, baina irakaslea ere bai. Ordezkapenak egiten aritu naiz, eta hori ere hor daukat, futboleko lanik ez badago. 33 urte ditut, badakit zer nahi dudak bizitzan. Entrenamendu mailan, agian Zipreko uda beroak arduratzen nau. Asmatuko ote dut entrenamendu egokiek, jokalariek sobera ez zigortzeko? Goizean goizean entrenatu, ze lan prestatu... Berrikuntza izango da niretzat.

Wikipedian ere begiratuko zenuen, noski, nora zoazen...

Bai, lehen gauza hori izan zen. Uharte ekialdean dago Larnaka, 70.000 bat biztanle. Gune turistikoa da. Badauka eliz ezagun bat, non erlijio-turismo handia biltzen den. Itsas-portua du, nazioarteko aireportua... Hortik aparte zure lanean zentratzen

zara. Galdetu zidaten lehen gauza non bizi nahi nuen, ze udan etxe eskaera handia dago. Imanolekin solasaldi asko eduki ditut, hango jendea nolakoa den, nire funtzioak zein izango diren eta beste.

Zaleak beroak al dira?

Imanolak esandakoa dakit. Gurean emaitzek dena baldintzatzen badute, ba han gehiago. Exigentzia maila lehen postuetatik gertu egotea da. Bigarren egin dute azken hiru denboraldietan, noski, hurrengo pausoa txapelketa lortzea da.

Orain 15 urte Madrilan INEF ikasten ari zinela halakorik gertatuko zela ez zenuen pentsatuko...

Ikasketetan inork ez du halakorik pentsatzen, baina halako lanetan aritzeko asmoz hasten zara ikasten, ezta?

Bakarren batek esango zizun: "Imanol Idiakez lagun mina duzula zoaz hara".

Nik dakidala ez, baina ez dit batere axola. Nik ez dut esango beste inor baino hobea naizekin, beste inor baino gehiago dakidanik, baina nire gaitasuna ere erakutsi dut. Egape ikastolan hasi nintzen baloiarekin, futbolaria izan nahi horretan. Ez dut horretarako dohairik, baina prestatzaile ikasketak egin eta bidea egin dut. Prestatzaile jardunean, eta baita irakasle ere. Pasio handiarekin aritzen naiz futbol kontuetan, hori da nire berezitasun onenetakoa.

Futboletik biziko zara, behintzat.

Beno, baliteke abuztuan etxean bueltan izatea hiru emaitza txar kateatuta. Nire onena ematera noa, taldeari laguntzera, Imanol aginduak betetzera. Gero gerokoak, baina ilusioz topera noa.

Urnietan Larnakarako hainbat hegazkin bidai begiratzen aritu omen dira lagun asko...

Etor daitezela! Esan diet, uztaile eta abuztuan lanpetuta ibiliko naizela, baina ongietorriak izango dira.

Bi sari Leizaran taldeari



Gipuzkoako eskubalo federazioak joan zen asteburuan 2016-17ko denboraldi amaierako festa ospatu zuen Errenteriko Niessen aretoan. Leizaran eskubalo taldeak bi sari jaso zituen ekitaldi horretan. Lehen, gizonzkoen senior mailako goleatzaile onenari. Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeko Javi Rodriguez jokalaritari, hain zuzen. Bere taldeak, senior mailako taldeak, kiroltasunari dagokion saria ere jaso zuen.

Allurralde kiroldegia

Igerilekua itxita egongo da egunotan.

Igerileku handia:

Ekainak 16. 15:00-21:00.

Igerileku txikia:

Ekainak 15. 15:00-21:00.

Ekainak 17, 10:00-12:00.

Igerilari gazteak



Buruntzaldea IKT taldekoek denboraldi amaiera bikaina eman zioten aurreko larunbatean, Lasarte-Oriako igerilekuan: "Gure taldearen festan adin guztietako taldekideak izan genituen uretan. Taldekide gehienak bildu genituen igerilekuan, txikienean denboraldiari ahalik eta amaierarik onena emateko".

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buzkaria

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOINGO UDALA

Unibertsitateko

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etbez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

EKAINAREN 16TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero

- "El sueño de Gabrielle"
Lar, 17. 19:30-22:00.
Ig, 18. 19:30.
Astl, 19. 19:30-22:00.

Dantza

Andoain

- **Axeri Dantza**, entseguak San Juan jailetako emanaldirako. Azken entseguak.
Ekainak 19, 21.
20:00 Ondarreta ikastetxea.
- **Axeri Dantza** jailetan:
12:00 Goikoplaza.
Ekainak 24, larunbata.

Urnietan

- **Ekainak 16, ostirala:**
Aukeran dantza taldea.
18:30 Lauesku.
20:00 Hooked.
22:00 Aukeran.
San Juan plaza.
- **Ekainak 17, larunbata:**
22:00 Egape dantza taldearen 10. urteurreneko ospakizuna, hainbat gonbidatuekin.
Plazido Muxika plaza.

Farmaziak

Andoain

- **Zatarain.** Elizondo plaza, 6. Gaez: **Etxebeste** (Hernani).
Ekainak 17-18.

Urnietan

- **Aizpuru Odriozola** (Hernani). Gaez: **Etxebeste** (Hernani).
Ekainak 17-18.

Antzerkia

Urnietan

- "Etxola magikoa", Joxe Mari Berasategiren zuzendaritzapean.
17:00 Sarobe.
Ekainak 16, ostirala.
- "Pentagrama enea", Urnietako Udaltzaren tailerraren eskutik.
19:00 Sarobe.
Ekainak 16, ostirala.

Kultur Astea

Urnietan

- **Denda Berri** elkartearen eskutik, ekainaren 16tik 23ra:
Ekainak 16, ostirala:
17:00 Toka eta mahai-jokoen txapelketa.
- Ekainak 17, larunbata:**
18:00 Iribarren orkestrarekin dantzaldia.
- Ekainak 18, igandea:**
Irteera Milagro herrira.
- Ekainak 19, astelehena:**
18:00 Jantzigintzari buruzko hitzaldia, Ane Albizuren eskutik.
- Ekainak 20, asteartea:**
Urnietan-Usurbil ibilaldia, bertan bazkalduz.
- Ekainak 21, asteazkena:**
18:00 Mago Sun aktorea.
- Ekainak 22, osteguna:**
11:30 Baleontzia eraikuntzaren bisitaldia eta bazkaria Trintxerpen.
- Ekainak 23, ostirala:**
Iribarren orkestrarekin dantzaldia.
22:00 San Juan sua.

Ikastaroak

Andoain, Urnietan

- **Txertatu merkatuan** ikastaroa: Prestakuntza margoketa industrial, bizikleta konponketa eta abar. 18-22 urte langabetuentzat.
Info: 943 30 42 21.
- **AEK euskaltegiak** ikasturte berrirako matrikulazio epea zabaldu du. Ekainaren 19a baino lehen aurrematrikula egiten dutenek onurak izango dituzte. Informazioa: 673 200 100.
www.aek.eus

Urnietan

- Udaltzaren kiroldetaren eta Saroben, udako ikastaroetan izena emateko epea zabalik: Igeriketa, tenisa, pilatesa, zumba, spinninga, gazte funkya.
Azken eguna:
Ekainak 16, ostirala.

Musika

Andoain

- **Andoingo X. Rock Jaialdia:**
18:00 Belarmiñak.
18:50 Peralta.
19:45 Penny Ikinger.
21:40 Limiñanas.
23:15 Belvis Frond.
01:00 Ebbot Lundberg.
Nafarroa plaza.
Ekainak 17, larunbata.

Urnietan

- **Ostruka's Band** taldearen kontzertua: Udaltzaren Musika Eskolako konboetako bat da. Hainbat talderen bertsoak.
20:30 HK10 Hotela.
Ekainak 16, ostirala.

Deialdiak

Andoain

- **San Juan sua** egin nahi dutenek baimena eskatu behar du udaltzaren bitartez.
Azken eguna: Ekainak 18.

Solstizioa

Andoain

- **Ametsondoa** ekimenak Udaltzaren solstizioa ospatuko du.
19:15 Goikoplaza.
Ekainak 21, asteazkena.

Urnietan

- **San Juan sua** eta Akelarrea.
22:00 Plazido Muxika.
Ekainak 23, ostirala.

Zikloa

Urnietan

- Gay eta lesbianen nazioarteko egunaren harira.
Ekainak 17, larunbata:
Autodefentsa ikastaroa Kiroldetaren, 8 ordukoa.
- Ekainak 20, asteartea:**
18:00 Ostadarran margotuko dute Plazido Muxikan.
- Ekainak 21, asteazkena:**
17:30 Hitzaldia Gaztelekuan: "Zer dakigu sexu aniztasunari buruz".

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Ekainaren 29an lau urte beteko ditu **Ariz** Irazu Romanek. Zorionak txapeladun! Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Ekainaren 14an 8 urte bete dituzu, **Asier**. Zure lagunaren partez, ondo-ondo pasa!

ANDOAIN

ZORIONAK




Ondo pasa **Isabel**, zure urtebetetzean! Asko maite zaitugu. Kimetz, Aratz eta Arane.

URNIETA



OSO ERRAZA eta doakoa. Zorion agurrak Aiurri astekarian: diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Whatsappa: 619 163 537

ZORIONAK



Jorge Calvo Perezek hamar urte beteko ditu ekainaren 14an. Zorionak, txapeladun, etxekoan partez eta muxu handi bat!

ANDOAIN

ZORIONAK



Mikel 18 bete zituen hilaren 8an. Bizitza berria irekitzen zaio orain. Segi zintzo eta jator. Muxu handia. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Naroatxu, hamairugarren urte berria beti bezain alai ospa dezazula. Muxuak eta ondo pasa, etxekoan partetik!

URNIETA

Euskalduna futbol taldearen deialdia



Une honetan Euskaldunak bi talde ditu emakumeetan; kadeteen eta infantilen mailatan. Talde kopurua handitu eta, aurrera begira, jubentzetan ere taldea osatu nahi luke Euskaldunak. Modan dago emakumeen futbola, gero eta jokalaritza eta jarraitzaile gehiago ditu, eguneko egun arreta zabalagoa eskaintzen diote komunikabideek ere, eta errealitate hori kontuan izanda, uste dute Andoain bezalako hamabost mila biztanleko herri batek orain dauzkan baino talde

gehiago behar lituzkeela eduki.

Eguna zehaztu ez badute ere, futboleko jokatzeko interes agertzen duten neskei begira, ate irekien jardunaldia prestatzeko asmoa daukate hurrengo egunetan. Eneritz Ramirez entrenatzaileak zuzenduko du topaketa, "entrenamendua antzeko zerbitzu izango da, guzua dinamiko eta dibertigarria, ikusi dezaten futbola euren aisialdia asetzeko moduko zaletasuna bihurtzeko".